

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2021eko maiatza / 316. zenbakia

www.oñati.eus  



ERREUSAK EGITASMOA

Baserrietako ondare etnografikoa katalogatzeko helburua duen proiektua aurkeztu dute

2019-2020ko Partaidetzazko Aurrekontuak **KONTU EMATEA**

HERRITARREK AUKERATUTAKO 16 INBERTSIOAK BURUTUTA DAUDE JADA

Partaidetzazko Aurrekontuak 2019-2020 prozesua amaierara iritsi da. Bere egunean herritarrek lehenetsitako hamasei inbertsioak burutu dira jada, eta kontuak emateko unea da.

Udal Aurrekontuetako 500.000 euro bi urtetan banatuta (2019 eta 2020) zertan inbertituko ziren herritarrek erabakitzea zen prozesuaren helburua. Udalbatza osatzen zuten bi talde politikoen adostasunarekin jarri zen martxan prozesua, eta izaera loteslea edo erabakitzailea zuen; hau da, prozesuaren amaieran herritarrek hartzen zituzten erabakiak aurrera eramateko konpromisoa hartu zuten alderdiek. Ildo horretan, ausaz aukeratutako eta herritarrez osatutako Berme Talde bat eratu zen, prozesuaren gardentasuna bermatzeko eta jarraipena egiteko.

FASE EZBERDINAK

2018ko maiatzean herritarrek proposamenak egiteko epea ireki zen aurrena eta, ondoren, ekainean, proposamenak lehenetsitako fasea egin zen; herritarrek adostutako irizpide jakin batzuen arabera, balorazio onena jaso zuten proposamenek egin zuten aurrera.

Ondoren, udal teknikariek proposamenen balorazio tekniko eta ekonomikoa egin zuten, eta, azkeneko, udal eskumenekoak ziren 38 proposamen igaro ziren bozketa fasera.

16 urtetik gorako 1.032 herritarrek parte hartu zuten bozketan, eta, 500.000 euroko aurrekontua osatu arte, boto gehien jaso zuten hamasei inbertsio proposamenak izan ziren aukeratuak.

PARTE HARTZE HANDIA

Udalbatza osatzen duten bi talde

Udal Aurrekontuetako 500.000 € zertan inbertitu herritarrek erabakitzea zen helburua

Parte hartze handia izan du Partaidetzazko Aurrekontuen prozesuak. 1.032 herritarrek parte hartu zuten inbertsioak aukeratzeko bozketan

politikoez eta ekimena koordinatu zuen udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa sailak oso positiboki baloratu zuten bozketa fasean eta, oro har, prozesu osoan zehar herritarrek erakutsitako interesa, konpromisoa eta parte hartzea.

Ondorengo orrialdeetan laburbildu ditugu 2019-2020ko Partaidetzazko Aurrekontuen baitan gauzatu diren inbertsioen inguruko xehetasunak: jasotako bozka kopurua, noiz gauzatu diren, egindako inbertsioa...

Azken puntu honen harira, kontuan hartu behar da inbertsioetako batzuetan udal brigadak hainbat lan egin dituela eta zeharkako gastu horiek kontabilizatu gabe daudela.

Udalak halako prozesu gehiago antolatzeko asmoa du, baina pandemia egoerak hobera egin arte itxaron beharko da.

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI


Cartonajes Arregui, S.A.




- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Erabilera publikoko komun irisgarriak

 1.003 bozka (%97,8)

 2019/2020an gauzatua

 Aurrekontua: 110.000 €
Gastu erreala: 80.229 €



Munazategiko komuna, goian, eta Olabarrietakoa, behean




ESKATUTAKOAK:


San Pedro-Madalena eta Olabarrieta-Asentzio arteko ibilbideetan bere kasa garbitzen diren komun irisgarriak jartzea.


GAUZATUTAKOAK:

Munazategi inguruan eta Aiastui parean (errepide azpiko pasabidearen ondoan) komun bana ipini da. Iturri bana ere jarri da.

Ugarkaldeko jolas parkea estaltzea

 486 bozka (%47,1)

 2020/2021ean gauzatua

 Aurrekontua: 118.000 €
Gastu erreala: 166.971 €



Euritik eta eguzkitik babesteko estalkia ipini zaio Ugarkaldeko jolas parkeari

ESKATUTAKOAK:


Ugarkalde auzoko jolas eremuan euri eta eguzkitik babesteko duen aterpea eraikitzea.


GAUZATUTAKOAK:


Arku formako estalki arin eta gardena jarri da jolas parkean, argizatuta. Jolas eremuaren zatirik handieran estali da, txirrista handia izan ezik.



Bizikletentzako aparkaleku estaliak

 433 bozka (%42,0)

 2020/2021ean gauzatua

 Aurrekontua: 60.000 €
Gastu erreala: 34.897 €



Bizikletentzako estalitako aparkalekuak egokitu dira herriko hiru gunetan


ESKATUTAKOAK:


Ikastetxe eta ekipamendu publikoen inguruetan bizikletentzako estalitako 4 aparkaleku ipintzea.


GAUZATUTAKOAK:

Hiru aparkaleku ipini dira: Santa Marina plazan, Azoka ondoan eta Zuazola Insituituan. Urgain-Errekalde eskolan eta Azkoagainen aurrerago ipiniko dira, arrazoi hauengatik: Urgainen hezkuntza-mugikortasunaren ikuspegitik kanpo espazioaren berrantolaketa aztertzen ari dira, eta kokagune egokia zehaztu gabe dago oraindik. Azkoagainen inguruko errepidean esku-hartzeak aurreikusita daude.

Zebrabideak argizatzea

 433 bozka (%42,0)

 2019an gauzatua

 Aurrekontua: 20.000 €
Gastu erreala: 21.533 €



Hainbat zebrabideetako argiteria indartu da segurtasunaren mesedetan

ESKATUTAKOAK:

Oinezko igarobideetako argiztapena indartzea, seguruagoak izan daitezzen oinezkoentzat

GAUZATUTAKOAK:

Euskadi Etorbideko argiteria berritzeko lanen baitan, Bidaurretako errotonda, Euskadi Etorbidea, Lazarraga eta Kurtzebide kalekoak argiztatu dira.



Urte askotan zuekin

© 688 764 299


Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es


Jaione San Miguel Ugarte




MAPFRE
OÑATI

Hondakinak gaika bereizteko zakarrontziak

 416 bozka (%40,3)

 2019an gauzatua

 Aurrekontua: 13.500 €
Gastu erreala: 16.860 €




Herriko 7 puntutan ipini dira hondakinak batzeko launakako edo binakako zakarrontziak

ESKATUTAKOAK:


Hondakin ezberdinak gaika batzeko launakako zakarrontzi-multzoak jartzea jende gehien dabilen guneean

GAUZATUTAKOAK: Launakako edo binakako zakarrontziak jarri dira 7 puntutan: Foruen plazan, Santa Ana-Udaltzaingo inguruan, Kale Zaharrean, Kale Barrian, Santa Marinaran, Kalegoienan eta Errementari plazan

Eserlekuak jartzea herriko hainbat gunetan

 359 bozka (%34,8)

 2019-2020an gauzatua

 Aurrekontua: 14.000 €
Gastu erreala: 4.356 €



13 eserleku ipini dira, 6 berriak, polimerozkoak, eta beste 7ak udalak gordeta zituenak, berritu ostean


ESKATUTAKOAK:


Atsedean hartzeko eta gizarte-harremanak landu ahal izateko bankuak jartzea herrian zehar.


GAUZATUTAKOAK:

13 eserleku jarri dira: Eltzia pareko parkean, Munazategi eta Aiastuiko komunaren ondoan, Elorregi-Fanderia artean, Ugarkalde goaldean, Larrain Gainerako bidean, eta Garaiko jolas parkean eta bidegorriaren aldamenean.

Zaborra lurrera ez botatzeko kontzientziazioa

 306 bozka (%29,7)

 2020an gauzatua

 Aurrekontua: 5.500 €
Gastu erreala: 7.528 €





ESKATUTAKOAK:


Zaborra lurrera botatzeko ohituraren aurrean arduratsu jokatzeko kontzientziazio kanpaina.

GAUZATUTAKOAK: Azaroan burutu zen 'Hondakin Astea' ren baitan egin zen, kartel, irudi eta kontzientziazio mezuen bidez. Kaleko hondakinak jaso eta hauen karakterizazioa egin zen jende aurrean. Herria hobetzeko proposamenak ere jaso ziren emailaz eta bertatik bertara.

Olakua auzoko kirol gunea hobetzea

 304 bozka (%29,5)

 2019-2020an gauzatua

 Aurrekontua: 47.000 €
Gastu erreala: 51.171 €



Hainbat hobekuntza lan egin dira Olakuako kirol gunean. Inguruko argiteria ere hobetu da.


ESKATUTAKOAK:


Olakua auzuneko kirol gunea zaharberritzea eta jolas orduak zabaltzeko eremua argizatzea


GAUZATUTAKOAK:

Kirol guneko lurzoruan erretxina bota da, portierietako sareak eta kanastak berritu dira eta inguruko argiteria hobetu da. Gainera, kantzaren bueltako egurrezko hesia osatu da.

Altuera txikiko rokodromo bat egokitzea

 293 bozka (%28,4)

 2020an gauzatua

 Aurrekontua: 2.000 €
Gastu erreala: 3.104 €




Haurrentzako altuera gutxiko eskalada gunea egokitu da kiroldegiko kanpoaldean


ESKATUTAKOAK:


Eskalada praktikatzeko adin eta maila tekniko eta fisiko ezberdinetako pertsonentzako rokodromo bat egokitzea kirol instalazioetatik kanpo

GAUZATUTAKOAK: Kiroldegiko kantxa urdinaren sarrera ondoko paretan egokitu da rokodromoa. Murala ere margotu da eta presak herriko eskalatzailen laguntzaz jarri dira

Urdandietarako bideko lur jausia konpontzea

 273 bozka (%26,5)

 2020an gauzatua

 Aurrekontua: 3.000 €
Gastu erreala: 2.104 €




Murgiako ur depositorako pistan konponketak egin dira


ESKATUTAKOAK:


Murgia auzoan, udalaren jabetzakoa den Urdandietako ur depositorako bidean gertatutako luiziaren kalteak konpontzea

GAUZATUTAKOAK: Urdandietako ur depositorako bidean dagoen baso pistan konponketa lanak egin dira.

Igotzeko eta oreka mantzentzeko jolas gunea

 249 bozka (%24,1)

 2020an gauzatua

 Aurrekontua: 60.000 €
Gastu erreala: 60.368 €




Soka bidezko jolas gunea egokitu da Errekalde eta Mendiko Kale arteko plazatxoan


ESKATUTAKOIA:


6-14 urte arteko gazteek beraien abileziak lantzeko sokadun eta saredun estruktura bat jartzea, aisialdirako aukera berriak eskainiz

GAUZATUTAKOIA: Errekalde eta Mendiko Kale arteko plazatxoan soka bidezko gunea egokitu da. Zorua ere berritu da, era honetako jolas eremuetarako araudia betez.

Kartelak dagokien lekuetan jartzeko kanpaina

 236 bozka (%22,9)

 2020-2021ean gauzatua

 Aurrekontua: 5.000 €
Gastu erreala: 3.221 €



Adierazpen libreko hiru gune berri egokitu dira


ESKATUTAKOIA:


Kartelak, pankartak edo pintadak horretarako egokitutako tokietatik kanpo ez egin edota jartzeko sentsibilizazio kanpaina egitea


GAUZATUTAKOIA:

Adierazpen libreko hiru gune berri egokitu dira Kasablankan, Osasun Zentroan eta plazako azoka gunean.

Adinekoen erorketak prebenitzeko jarduerak

 233 bozka (%22,6)

 2020-2021ean gauzatua

 Aurrekontua: 6.500 €
Gastu erreala: 5.907 €




Erorketak prebenitzeko adinekoen zuzendutako tailerrak egiteko materiala erosi da


ESKATUTAKOIA:


Adineko pertsonen erorketen prebentzioarako eta gaitasun fisikoak mantentzeko, oztopo arkitektonikorik gabeko espazio egoki bat egokitzea

GAUZATUTAKOIA: Erorketen prebentzioarako material berezia erosi da. Zubikoa kiroldegiko aretoetako bat bideratuko da horretarako tailerrak gauzatzeko.

'Emakumeen Etxea' ren diagnostikoa egitea

 233 bozka (%21,9)

 2020an gauzatua

 Aurrekontua: 12.500 €
Gastu erreala: 0 €



Emakumeen Etxea egitasmoa abian jartzeko diagnostikoa egin da


ESKATUTAKOIA:


Emakumeentzako Jabetze Eskolak berriazko espazio bat izateko, 'Emakumeen Etxeak' bultzada handia emango liokeela ulertuta, hasierako diagnostiko bat egitea.


GAUZATUTAKOIA:

Udaleko Berdintasun departamentuak egin du azterketa, barne baliabideak erabilia.

Aire libreko zine emanaldiak antolatzea

 220 bozka (%21,3)

 2020an gauzatua

 Aurrekontua: 5.000 €
Gastu erreala: 3.626 €




Aire libreko bi zine emanaldi antolatu ziren ESKU-LTU-RA programaren baitan


ESKATUTAKOIA:


Pelikulak ohiko zine aretoetan eskaini ordez, herriko gune edo txoko ezberdinetan aire libreko bi zine emanaldi eskaintzea urtero

GAUZATUTAKOIA: ESKU-LTU-RA kultur programaren barruan bi saio antolatu dira, bata euskaraz ('Black is Beltza') eta beste gaztelaniaz ('La mujer de la montaña')

Industria pabilioi hutsen azterketa egitea

 219 bozka (%21,2)

 2020an gauzatua

 Aurrekontua: 12.500 €
Gastu erreala: 7.865 €



Herriko industria eraikinen diagnostika egin da, hutsik dauden pabilioiak identifikatuz

ESKATUTAKOIA:

Herrian hutsi dauden pabilioien inbentarioa eta izan dezaketen erabilera aukeren azterketa egitea

GAUZATUTAKOIA:

Industria eraikinen diagnostika egin da. Hutsik daudenak zenbatu eta etorkizunean eraiki ahalko liratekeen pabilioiak identifikatu dira. Ondorioztatu da hutsik daudenak ez direla asko eta ez dagoela estrategia berezien beharrik.

OÑATIKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA (H.A.P.O.)

Aurrerakin dokumentua herritarrei aurkezteko saio irekia egingo da maiatzaren 10ean

2030a bitartean Oñatin zer eta non eraiki ahal izango den finkatzen da HAPOan ■ Herritarrek egindako ekarpenekin Sabai Arkitektoak taldeak landu duen aurrerakin dokumentua aurkeztuko zaie herritarrei

SAIOAREN AMAIERAN HAINBAT EKIPAMENDU ETA AZPIEGITURARI BURUZKO LEHEN IRITZIAK JASOTZEKO AUKERA EGONGO DA, AURRERAGO ZEHATZAGO LANDUKO DIRENAK

Oñatiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) eguneratzeko prozesuan fase bat itxi eta hurrengora pasatzeko unera iritsi da. Diagnostiko fasearekin hasi zen HAPOa eguneratzeko prozesua 2018an. Ondoren, Aholku Kontseiluaren (herriko talde eta elkarte ezberdinetako 20 ordezkari osatutako organoa) eta herritarren proposamenak jasotzeko hainbat saio egin ziren, eta saio horietan jasotako ekarpenekin Sabai Arkitektoak enpresak egindako AURRERAKIN dokumentua aurkeztuko zaie orain herritarrei. Bertan azaltzen da, besteak beste, zer eta non eraiki ahal izango den Oñatin hurrengo hamarkadan. Maiatzaren 10ean egingo da aurkezpena **Gaztelekuan, 18:00etan**, eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Aurrerakinak jasotzen dituen irizpide nagusiak laburbildu ditugu jarraian.

LURRALDE EREDUA

- Irizpide orokor bezala, hazkuntza eredu kontrolatu eta zentralizatu baten aldeko apustua egiten da. Hau da, etxebizitza, enpresa edo azpiegitura berriak eraikitzeko herrigunean jada kalifikatuta duden lurzorua agortzea sustatuko da, garapen periferikoen aurrean.
- Hirigunearen inguruan gerriko edo ingurabide berde bat osatu nahi da, herriko gune natural eta espazio berdeen arteko lotura jarraitua eginez, nekazaritza-abeltzaintza erabilerarako nahiz paisaia eta ekologia ikuspegitik balio handikoak diren lursailak babestuz.

- Ildo horretan, HAPOaren aurrerapenean proposatzen den ereduari ez da lurzoru urbanizagarriak programatzen.

ETXEBIZITZAK

- 2006ko Oñatiko Arau Subsidiarioen arabera, 406 etxebizitza daude oraindik eraikitzeke. Bestalde, Lurraldearen Antolamenduko Gidalerroetan Debagoiena eskualderako aurreikusten den hazkuntza kontuan hartuz, Oñatin 600 etxebizitza eraikitzeko aukera jasotzen du HAPO berriak: Kasablankan (60), Kurtzekuan (60), San Martinen (32), Ugarkalden (6), Cegasan (250) eta

Berezaon (190).

- Gaur egun Cegasak hartzen duen lurzorua eta Berezaon eremuko zati bat (Eroski inguruak) eraldatzea proposatzen da, orotara 390 etxebizitza eraiki ahal izateko. Berezaon 190 etxebizitza eraiki ahal izango liriteke (76 babestutakoak) eta Cegasako eremuan 250 (100 babestutakoak). Horrek, jakina, aurrena Cegasa eta Berezaon guneetan martxan dauden industria edo jardueren lekualdatzea eskatuko luke.


INDUSTRIA

- Garatu gabe dagoen lurzorua (Zugastui,

Migelena, Munazategi...) agortzea proposatzen da, 59.174m² guztira.

LURZORU EZ URBANIZAGARRIA

- Ondare arkeologikoa, paisaia, ekologia, klimaren aldaketa edo nekazaritza-abeltzaintza erabileraren ikuspegitik interes berezi-koak diren eremu naturalen sailkapena egiten da, babes neurriak zehaztuz.
- San Martin, Olapoto, ETEO, Ugarkalde, Berezaon, Antia eta Cegasako parke eta berdeguneak kontsolidatzen dira, beraien arteko lotura bermatuz.



ESPASIO LIBREAK

- Oñati erreka berreskuratu, bistaratu eta bere inguruan ibai-parke bat sortzea proposatzen da, Cegasatik Berezaoraino oinezkoen ibilbide bat ahalbidetuz.
- Ugarkalde-ETEO, Olapoto eta San Martingo parkeen arteko lotura bermatzea proposatzen da, hiri anotolamendurako ardatz gisa hartuz.
- HAPOak pprosatzen duen espazio librearen sistema orokorrak 82.414m²-ko azalera hartuko luke (6,45m²/ biztanleko), Lurzoruaren Legeak eskatzen duenaren (5m²) gainetik.

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

- Honakoak proposatzen dira:
 - Garraio publikoa sustatzea.
 - Aparkaleku disuasorioak hiriaren kanpoaldean
 - Lurpeko aparkalekuak Cegasan eta Berezaon
 - Brinkolako geltokiarekin lotura sustatzea.
 - San Prudentzion eta

Olabarrietan estazio intermodalak.

- Bide-sareari dagokionez, estrategikotzat jotzen dira:
 - Roke Azkune kalearen eta Berezaio poligonoaren arteko lotura, zaku-hondoa saihestuz.
 - Kale Zaharra eta Ibarra Zelai Zabalgunea kaleak lotzea.
 - Zubillaga-Oñati bide sa-

rean biribilguneak.

- Honako hauen azterketan sakontzea proposatzen da:
 - Zumeltzegi eta Usakorako sarbideak hobetzea.
 - Landa-auzoetako sarbideetan zaku-hondoak saihestea.
 - Saihesbidearen bigarren ea laugarren faseak ez dira programatzen. ■



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Arantzazu Sagarzazu eta Klara Larruzea, **ERREUSAK** egitasmoaren sortzaileak, Izaro Elorza, alkatea, eta Iñaki Olalde, kultura zinegotzia, Oñatiko ondare etnografikoa bilduma osatzeko helburua duen proiektuaren aurkezpenean.

ERREUSAK

baserrietako ondare etnografikoa katalogatzeko helburua duen egitasmoa aurkeztu dute

Lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Udalak eta Gure Bazterrak taldeak proiektua gauzatzeko

Herriko kultur ondarea jaso, balioan jarri eta gizarteratzea helburu duen *Erreusak* egitasmoa gauzatzeko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Udalak eta Gure Bazterrak taldeak.

Oñatiko ondare etnografikoaren bilduma bateratu bat sortzeko lehen pausuak ematera datorren ekimena da *Erreusak*. "Industriaurreko gizarteraren

erakusle diren objektuak katalogatu eta bizimodu haren lekuko izan ziren herritarren testigantzak jaso nahi ditugu" azaldu dute Arantzazu Sagarzazuk eta Klara Larruzeak, *Erreusak* egitasmoaren sustatzaileak. Asmo horrekin, herriko 80 baserri eta beste zenbait tailer eta erakunde bisitatuko dituzte uztaila eta abuztua bitartean. Guztira, 1.400

HERRIKO 80 BAT BASERRI BISITATU NAHI DITUZTE, ANTZINAKO LANABESAK KATALOGATU ETA LEKUKOEN TESTIGANTZAK JASOTZEKO

pieza inguru katalogatzea espero dute. Lehenago, *Kapirixo* eta *Artixa* bezalako taldeek egindako lanari jarraipena ematera dator *Erreusak* proiektua

'Erreusa' hitza Kandido Izagirrearen *Vocabulario Vasco de Aránzazu-Oñate* hiztegian ageri da (Soroandietako baserriko Pedro Urzelai zenari jaso) eta 'hondatuta edo erabilerarik gabe gelditu

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

direlako, baliorik gabeko ondasunak adierazteko erabiltzen da. "Gure asmoa, erreus horiei balio historiko eta soziala gehitzea da" azaldu du Sagarzazuk, proiektuaren izenaren nondik-norakoa argitzeko.

Proiektuaren sustatzailea den *Gure Bazterrak* elkarteak Oñatiko euskara, historia eta kultura gaien inguruko interesa duten gazteen taldea da. Antixena gaztetxean du egoitza, eta, ildo horretan, gaztetxea itxi izana salatu zuen Sagarzazuk.

UDALAREN BABESA

Erreusak egitasmoak Udalaren babesa jaso du, "ondarea jaso, balioan jarri eta gizarteratzeko helburuekin bat egiten dugulako" adierazi zuen Izaro Elorza alkateak, eta 15.000 euroko dirulaguntza emango du lana burutzeko.

"Proiektu sendoa eta serioa da" gaineratu zuen Iñaki Olalde, kultura zinegotziak; "horregatik, dei egiten diegu baserritarrei egitasmoan parte hartzera, herriaren onerako izango delako, eta berme osoa duen lantalde profesionala dagoelako proiektu honen atzean".

HITZALDI ZIKLOA

Informazioa jaso eta katalogatu ondoren, datu-base bat sortuko dute, informazioa herritar ororen esku uzteko, eta erakusketa bat antolatzen aukera ere ez dute baztertzen *Erreusak* proiektuko sustatzaileek.


Gainera, etnografia gaien inguruko hitzaldi sorta bat ere antolatuko dute.

Maiatzak 28: *Antxiña, traktorarik ez zanian...* (Juan Martin Elexpuru).

Ekainak 3: *Proyecto Zaharkinak: dinámica popular y etnografía* (Fermin Leizaola).

Ekainak 11: *Luzaideko etnografía esperientzia* (Suberri Matelo).

Ekainak 18: *Gordailua: traste zaharrak ondare* (Xabier Kerexeta). ■



Irudia: Mirari Sagarzazu

ERREUSAK EGITASMOA

Herritarrak behar dituzte LANDA-LANA EGITEKO

Baserriz baseri informazioa jasotzen ibiliko diren laguntzaile bolondresak behar dituzte *Erreusak* egitasmoaren arduradunek. "Uste dugu herritar guztion ardura dela gure aurrekoek utzitako ondarea jaso eta hurrengo belaunaldiei uztea. Aukera ederra da gure arbasoen bizimodua eta kultura ezagutzeko eta ulertzeko. Beraz, animatu egin nahi ditugu herritarrak proiektuan parte hartzera".

ASTE BATEKO KONPROMISOA

72 laguneko bolondres taldea osatu nahi dute, eta bost pertsonako talde txikiak osatuko dituzte informazioa jasotzeko.

Uztaila edo abuztuko aste batean, goizez, egingo da informazio bilketa baserriz baseri. Lanabes edo tresnei argazkiak atera, eta hauen inguruko historia eta lekukoen testigantzak jaso beharko dituzte. Horretarako, aurrez formakuntza saio bi egingo dituzte, ekainaren 19an eta 26an, goizez, informazioa nola jaso behar den azaltzeko: fitxak nola bete, elkarrizketak zelan egin...

Ez da lan zaila. Kultura, historia edo euskararen gainean interes minimo bat duen edozein pertsonak egin dezake. Beraz, animatu egin nahi ditugu herritarrak (18 urtetik gorakoak) *Erreusak* proiektuan parte hartzera, eta objektuen jabeen beraien etxeko atea zabaltzera.

Laguntzeko prest dauden herritarrek ekainaren 13a baino lehen eman behar dute izena erreusak@gmail.com helbidean edo kultur etxeko sarreran

Zuntza | Mugikorra

600 Mb | **7 GB**

Simetrikoko | + Dei mugagabeak

+ telefono finkoa + 1GB-ko linea bat doan

IRAUNKORTASUNIK GABE

BETIRAKO

42 € HILEAN

BEZA barne

BANATZAILE BAIMENDUA

KONTRATATU ZURE GUUK

ZUNTZA LIZKER

INFORMATIKA DENDAN

Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati

943 09 06 00

guuk

ZUNTZA MUGIKORRA TB

BEZA barne. Etilatza 2020/11/30ra arte egongo da indarrean Euzkadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko doako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hauetan bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifa lineaen prezioak izango dituzte, GB eta destarako minutu kopuru bereak. 1GB-ko doako Guuk tariloren kasuan, prezio berrak 6,5€/hil izango dira. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorraren gaitasuneko kopurua 4 izango da. Linea nagusia kontsumo hartu gabeko. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorririk izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: finko eta mugikorraren nazionalitateko dei mugagabeak, 7GB eta 40MB min. Muga hori gainditzean, abiadura 16 Kb/s-ia jaitziko da. Nahi duzuenan eman diezakezu baje zerbitzuari, baina bidaltzailea 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 121€-ko zigorrak ordaindu beharko duzu (BEZA barne). Kontsultatu gureko baldietzak helmer: www.guuk.es



GEROAKo kaltetuen plataformak epaiketara jotzea erabaki du

Diskriminatuta sentitzen dira, jubilatzekeo garaian ezin dutelako GEROA Pentsio Planera egindako diru ekarpenak kapital moduan erreskatatu. 'Euskorralito' baten aurrean gaudela salatzen dute.

Geroak Kaltetutakoaren Plataforma (Agravados Por Geroa) 2019ko abuztuan sortu zen, bertan bildutako ustez GEROA PENTSIOAK erakundearen eskutik jasaten ari diren diskriminazioa salatzekeo, ezin dutelako bizitza laboralean zehar pentsio planera egindako diru ekarpenak kapital moduan berreskuratu, 45.120 eurotik gorako aurrezkiak baldin badauzkate. Urte eta erdi daramate GEROAKo gobernu organoei (ADEGI eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak) adostutako konponbide bat eskatzen, baina inolako borondaterik ikustez ez dutenez, epaitegietera jotzea erabaki dute. Plataformaren sustatzaile Joxe Mari Lazkanorekin hitz egin dugu.

Zein da oinarrian dagoen arazoa?

Erraza da ulertzeko. Jubilatzekeo garaian GEROA Pentsio Planean 45.120 euro baino gutxiagoko diru-ekarpena egina duten bazkide-langileek diru guztia kapital modura erreskatatzeko aukera dute, dena batera; aldiz, kopuru hori baino gehiago dugunok, ezin dugu kapital modura erreskatatu,

eta derrigortuta gaude errenta bidez jasotzera, 190€ inguru hilero, 25 bat urtetan zehar.

Ez duzue bidezkoa ikusten.

Jakina. Zergatik dute bazkide-langile batzuek dirua nahi duten eran erreskatatzeko aukera, kapital modura edo errenta gisa, eta beste batzuek ez? Hori diskriminazioa da. Gainerako langi-

1.900
bazkide-langile
biltzen ditu gaur
egun GEROAK
kaltetutakoaren
plataformak,
horietatik 16
oñatarrak

leen betebeharrak berberak ditugu diru-ekarpenak egiterakoan, baina ez eskubide berberak prestazioa jasotzerakoan.

Diru hori geurea da eta, beraz, eskatzen duguna da nahi dugun bezala erreskatatu eta kudeatu ahal izatea. Zergatik batzuek bai eta besteok ez? Zer dela eta diskriminazio hori?

Euskorralito baten aurrean gaude, GEROAK pentsio txiki batera mugatu nahi gaituelako 25 urtetan. Entitatearen gatibu mantendu nahi gaitu, gure borondatearen aurka

Baina aurrezkiak erreskatatzeko sistema hori GEROAREN estatutuetan dago jasota, ezta? Bai, baina horrek ez dit balio.

GEROA

1996an ADEGI patronalak eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek sortu zuten GEROA pentsio plana, metal arloko lan hitzarmenarekin batera. Langileak hileroko bere soldataren portzentaje bat jartzen du pentsio planerako, eta enpresak kopuru bereko ekarpena egiten du langilearen poltsara. Gaur egun, hongoi bat sektoretako 110.000 langile daude GEROAn.

GEROA sortu zenean dena adostuta etorri zitzaigun eta, gainera, derrigortuta sartu gintuzten. Gerora, 25 urte hauetan zehar, GEROAko gobernu organoek hainbat aldaketa egin dituzte estatutueta (uneko behar eta interesen arabera), sistema honetara iritsi arte.

Beraz, GEROAko gobernu organoek eskatzen diegu (beraiek dute horretarako ahalmena) alda ditzatela lehenbailehen estatutuak, langile bakoitzak aukeratu ahal izan dezan, askatasunez, nola berreskuratu nahi duen bere dirua jubilatzen denean.

Diskriminazio honekin amaitu beharra dago, eta arrazoi beragatik, bideratu egin behar dira, aurrezkiak errenta moduan erreskatatzera behartuta egon diren langile erretiratu, ezgaitu eta alargunekin sortutako salbuespeneko egoerak.

ADEGI patronala eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak daude GEROAko gobernuan. Alde biek hitz egin duzue. Zer diote?

Paradoxikoki, denak ados daude gai honetan. Estatutueta hala jasota dagoela, eta hortik ez dira mugitzen. Geurekoiak izatea leporatu digute, GEROA apurtu nahi izatea... Baina eskatzen dugun bakarra geurea da. Gure dirua eduki nahi dugu, nahi bezala kudeatu ahal izateko.

Sindikatuak esaten digute beraien filosofia errenta dela. Baina nola defendatu dezakete argudio

» JOSEBA VILLARREAL / ELAko ordezkaria GEROAko gobernu organoan

"GEROAren zutabeetako bat errentan kobratzea da"

GEROAko gobernu organoan ordezkaritza zabalena duen ELAko ordezkari Joseba Villarrealen ikuspuntua jaso nahi izan dugu.

-Ze irakurketa egiten duzu GEROAko Kaltetuen plataformako aldarrikapenen inguruan? Zilegi da bakoitzak nahi eta uste duena aldarrikatzea, inolako zalantzarik gabe.

-GEROAren egindako ekarpenak berreskuratzeko modua aldatuz joan da urteetan zehar, ezta? GEROA bere helburuak hobe bete ahal izateko behar besteko aldarrikapenak egin eta egingo ditu, pentsio publikoaren osagarri izatearen helburu nagusia bilatzeko. GEROA bost zutabe nagusi ditu: negoziazio Kolektiboari lotutako ekarpenak, ekarpen hauek alde bikoak eta

parekideak, arrisku asegura eta errentan kobratzeko helburua. Hauek dira adaketarik izango ez duten oinarri nagusiak. Denak batera doazenak, ereduaren funtsa osatzen dutenak.

-Hala ere, kopuru batetik beherako ekarpenak kapital modura erreskatatu daitezke. Zergatik? Pentsio osagarriak ordaintzea helburua izanik, pentsio horiek minimo batzuetatik abiatu behar zirela pentsatu genuen eta pentsatzen dugu.

-Epaiketara joko omen du kaltetuen plataformak. Nola ikusten duzu auzia? Eskubidea badaukate eta beraien erabakia da. Guk beti bezala legerari zorrotz eta zuzen jarraituko dugu. Gure aldetik behin eta berriz azaldu dugu hitz egiteko borondatea eta hirutan baino gehiagotan elkartu gara.

hori, gaur bertan dirua kapital moduan berreskuratzen ari den jendea dagoenean? (45.120 eurotik behera dutenak).

Iaz, pandemiaren eraginez, Geroako akzioen balioa jaitxi egin zen eta askok aprobetxatu egin zuten une hori, beraien aurrezkien balioa 45.120 euroko mugatik behera jaitxi zelako, dirua erreskatatzeko, milaka euro galdu arren. Ez al da tristea dirua galdu behar izatea?

Erabakita duzue epaiketara jotzea?

Bai. Urte eta erdi daramagu adostutako konponbide baten bila, baina inolako borondatearik ikusten ez dugunez, ez zaigu beste aukerarik geratzen. Oso tristea eta gogorra da, geurea ere baden erakundearen aurka joko dugulako, baina ez dugu beste aukerarik.

Ez dakit zer den GEROAko ekarpena. Erakundeak deskapitalizatzeko arriskua ote dagoen galdetu izan diegu, eta beraien erantzuna izan da hori 'pecata minuta' dela. Beraz, ez dakit zein den benetako arazoa, eta beldurra ematen dit hortik atera daitekeenak.

Noiz joko duzue epaitegira?

Euskadiko nahiz estatu mailako zortzi abokatu talde ezberdinekin hitz egin dugu, eta datozen egunetan erabakiko dugu zeinekin egiten dugun aurrea. Hortik aurrera, beraien esanetara jarriko gara.

Nola ikusten duzu auzia?

Baikorra naiz. Abokatu guztiek eta beste jende askok esan dit arrazoia dugula. GEROA erakunde boteretsua da, 2.200 milioiko ondarea dauka, baina gu bukaeraraino iristeko prest gaude, eta beharrezkoa bada, Europaraino iritsiko gara.

GEROAko hogeita hiru sektore ezberdinetako 113.000 inguru bazkide ditu, eta zuten plataformak 1.900 inguru biltzen ditu, oraingoz.

Pandemiak zaildu egin digu plataforma ezagutzera emateko ahalegina, baina, hala ere, kopuru oso ona da prozesu honi ekiteko. Gainera, uste dut gero eta jende gehiago batuko zaigula, lanean ari garela ez bakarrik geure eskubideen alde, baita etorkizuneko jubilatu diren langileen alde ere. Gurekin harremanetan jarri nahi duenak deitu dezala **639 718 566** zenbakira. ■



«GEROA pentsio planean 45.120 euro baino gehiago duenak ezin du bere aurrezkiak kapital moduan berreskuratu, eta kopuru hori baino gutxiago daukanak bai. Zergatik diskriminazio hori? Zer ekarpenak duzue gure GEROA maiteak?»

Arantzazu aldizkariak 100 URTE

1921eko maiatzaren 15ean argitaratu zen aurrenekoz Arantzazuko frantziskotarren aldizkaria. Gaur egun 5.000 harpidedun ditu.

Berezia izango da hil honetako *Arantzazu* aldizkaria, 1039. zenbakia, frantziskotarren hilabetekariak mendeurrena betetzen baitu. Ehun urteko ibilbidea santutegiko berri ematen, frantziskotartasunaren balioak zabaltzen, eta pertsonen nahiz gizarte mailako kezka nagusien inguruko gogoeta eragiten.

Arantzazuko Ama Birjina gipuzkoarren zaindaria izendatzeak (1918) hauspotu zituen frantziskotarrak aldizkari bat sortzera. Santutegiko fraide gazte talde batek izaera literario-zientifikoa izango zuen argitalpen baten proposamena aurkeztu zuen, baina, ordenako talde kapitularrak zerbait orokorragoa eta dibulgatzaileagoa nahi zuen, eta, hala, 1920ko uztailan erabaki zuten Arantzazun aldizkari bat sortzea, Gipuzkoako Zaindariarekiko debozioa sustatu eta zabalteko helburuarekin. 1921eko maiatzaren 15ean argitaratu zen lehen zenbakia, Aita Jose

Adrian Lizarralderen zuzendaritzapean.

Horretarako, frantziskotarrek inprenta bat egokitu zuten santutegian bertan, 16.000 pezetako inbertsioa eginda, eta tailerrean lan egingo zuten fraideek Bergarako Aita Dominikoen eskutik jaso zuten formazioa. Inprentak 75 urtez jardun zuen Arantzazun, 1995era arte.

BENETAKO ALTXORRA

Santutegiko mezulari izateko sortu zen *Arantzazu* aldizkaria (1987ra arte *Arantzazu* izenez argitaratu zen), baina erlijio gaietara mugatu barik, beti jorratu izan ditu gizarte arazoak eta kultura, historia edo naturarekin lotutako edukiak, besteak beste.

Azpimarratzekoa da, bestalde, *Arantzazu* aldizkariaren historian zehar izan duen idazle eta kolaboratzaile zerrenda: Jose Adrian Lizarralde, Jose Ignacio Lasa, Inazio Eizmendi 'Basarri', Luis Villasante, Bitoriano

Gandiaga, José de Arteche, Iñaki Llanasoro... gutxi batzuk aipatzearen. Jakituria eta esperientzia handiko luma zorrotzak, denak ere.

Horregatik, *Arantzazu* aldizkariaren milatik gora zenbakiek balio handiko artxiboa osatzen dute, euskal kultura, artea, historia, etnografia, teologia edo espiritualitateari buruzko artikulua interesgarriekin.

Hizkuntzari dagokionean ere *Arantzazu* aldizkariaren ekarpen handia egin du euskararen alde. Gerra garaiko eta osteko (1937-1945) urteetan izan ezik, euskarak beti izan du bere lekua aldizkariaren, eta gaur egun ere, heren bat euskaraz da.

2007a ere mugarria izan zen *Arantzazu*-ren historian, garai hartan santutegian argitaratzen ziren beste bi aldizkarietako (*SAP* eta *Misiones Franciscanas*) edukiak ere *Arantzazu*-n biltzea erabaki baitzen.

ETORKIZUNERA BEGIRA

Aldizkari preziatua izan da beti *Arantzazu*. Garairik opa-roenean, 1960-1980 artean, 20.000tik gora harpidedun izatera iritsi zen, eta gaur egun 5.000 inguru ditu. "Harpidedunetako asko edade-tuak ziren, eta, normala den moduan gutxituz doaz, baina, bestalde, bila dabilen jende asko dago oraindik ere, eta horientzako aldizkari ahalik eta merezigarriena egitea da gure erronka" adierazi digu Aitor Sorreluz zarauztarrak. Bera da aldizkariaren zuzendaria 2017az geroztik, Iñaki Beristain zenak utzitako lekua betez.

"Arantzazurekin batera, aldizkaria bera ere aldatuz, egokituz eta berrituz joan da ehun urte hauetan, eta orain geuri dagokigu planteatzea zein izango den bere lekua eta egitekoa etorkizunean" dio zarauztarrak, baina konbentziturik dago Arantzazuk baduela zeresana gaurko gizartean. "Oso nabarmena

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es





> Arantzazu aldizkaria hamarkada ezberdinetan

da, gizakiaren alderdi espiritual asetu gabe dagoela gaur egun. Jende askok jotzen du ekialdeko erlijioetara, isiltasuna eta meditazioa lantzen dituztelako, besteak beste. Eta nik uste dut balio horietako asko gure tradizioan ere badaudela, eta nik hor kokatu nahi nuke aldizkaria. Gizartean dagoen sentsibilitate edo behar horiei erantzuten asmatu behar dugu".

"Arantzazu harrera leku bat da bila dabilzan pertsonentzat, eta horixe da, hain zuzen, aldizkariaren filosofia bera ere: bizitzari zentzua aurkitu nahian dabilzan gizon-emakumeen kezka horien inguruan gogoeta egiten laguntzea, ikuspegi humanista batetik. Gaur egungo munduan fedea posible egitea da, azken batean, gure erronka". Ildo horretan, artikulua, kronika, elkarrizketa eta gogoeta interesgarriak eskaintzen ditu hileroko *Arantzazu* aldizkariak.



» **AITOR SORRELUZ AGINAGA**
Arantzazu aldizkariako zuzendria

"Bila dabilzan pertsoneri gogoeta egiten laguntzea da Arantzazu aldizkariaren funtzioa, ikuspegi humanista batetik"

ZENBAKI GUZTIAK DIGITALIZATUTA

Arantzazu aldizkariaren zenbaki guztiak Euskal Liburutegi Digitalean (www.liburuklik.euskadi.eus) atarian daude irakurgai. PDF formatuan deskargatzeko aukera ere badago. Gainera, laster, bilatzaile automatikoa aktibatuko dute, edukiak errazago aurkitu ahal izateko

ALDIZKARIKO HARPIDETZA

Arantzazu aldizkariaren urte osoko harpidetzak (11 zenbaki) 23€ balio du. Telefonoz (697 160 857) edo emailaz (aldizkaria@arantzazu.org) egin daiteke harpidetza. Arantzazuko basilikako sarreran ere eskura daiteke, borondatearen truke.



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP
✉ OINATI@COINBROKER.EUS





Goian, Roberto
Altuna, irakaslea,
Brunilda Deaza
(Dominikar
Errepublika), Rosa
Tobajas (Oñati) eta
Ernesto Murgiondo,
irakaslea. Behean,
Amelia Aldas
(Ekuador), Marcela
Maltez (Nikaragua),
Arianne Baez
(Dominikar
Errepublika),
Carlos Gustavo
Ulloa (Nikaragua)
eta Daniela
Pedroza (Kolonbia)
zaintzaileen taldeko
ikasleetako batzuk.

ETXEZ ETXEKO ZAINZA ARLOKO LANGILEAK, UDAL EUSKALTEGIAN

"Ikasi egin gura dugu euskara"

Asko dira jendaurreko lanetan (ostalaritzan, etxez etxe zaintzan...) diharduten herritarrek, euskaraz komunikatzeko gai ez direnak, etorri berriak direlako, edo ikasteko aukerarik izan ez dutelako. Horregatik, pertsona horiei zuzendutako doako ikastaro espezifikoak antolatu ditu Udal Euskaltegiak, oinarrizko ahozko komunikazioa lantzeko helburuarekin. Zaintzan diharduten ikasleekin egon gara, eta, denbora askorik ez duten arren, euskara ikasteko ilusio eta gogorik ez zaie falta.

"Gure lanerako beharrezkoa ikusten dugu euskara jakitea edo oinarrizko ezagutza bat edukitzea, gutxienez, zaintzen ditugun pertsonetako askok euskaraz bakarrik berba egiten dutelako" esan digute.

Dominikar Errepublika, Nikaragua edo Kolonbiakoak dira, eta batzuek Oñatin urte

asko daramatzaten arren, lehen aldia da euskara ikasten hasi direna, eta gogotsu daude. "Ez da erraza, egiar zor, hizkuntza bera oso desberdina delako, eta gure adinean zaila delako hizkuntza berri bat ikastea".

Dena den, zaintza arloko langileek izaten duten oztopo

Guretzako sakrifizio handia da, egunean zehar dugun denbora libre apurra euskara ikasteari eskaintzen diogulako, baina merezi du

Zaintzen ditugun pertsonetako askok euskaraz bakarrik berba egiten dute, eta, beraz, inportantea da euskara jakitea gure lanean. Asko hobetzen da komunikazioa

edo zailtasun nagusia denbora falta izaten da, ia egun osoko lan jarduna izaten dutelako, eta egunean zehar duten denbora libre apurra eskaini behar diotelako euskara ikasteari. "Sakrifizioa da guretzat, baina gustura ari gara, herri honetan integratu gura dugulako, eta, politikoki ikasten ari garela ikusten dugulako. Hemengo jende gehienak badaki gaztelaniaz, eta hori lagungarria da guretzat, baina, bestalde, jakitun gara herri hau lan handia egiten ari dela euskarak bizirik jarraitzeko, eta gure esfortzuekin aitortza egin gura diogu ahalegin horri".



Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Ordu eta laurdenero saioa izaten dute egunero, bazkalostean. Gustura daude, bai ordutegiarekin eta baita erritmoarekin ere, poliki-poliki aurrera doazela ikusten dutelako. "Lehen, adibidez, zaintzen dudana pertsonak 'ondoloin' esaten zidan eta neure buruari galdetzen nion 'zer demontre izango ote zen hori?'. Orain, aldiz, 'triste nago' edo 'hankan min' edo 'ezkerra, eskuma...' esaten badit, ulertzen diot, eta asko hobetu da gure arteko komunikazioa".

JARRAITZEKO GOGOZ

Ulermen mailan, bereziki, hobekuntza handia nabaritu dutela aitortu digute. "Kalean ikusten ditugun kartel asko ulertzeko gai gara orain. Berba egitea gehiago kostatzen zaigu. Horixe da zailena, baina saiatzen gara eskolan ikasitakoa praktikan jartzen, eta jendea asko pozten da euskara ikasten ari garela ikustean".

Irakasleen ahalegina ere eskertzen dute, "gure lekuan jartzen direlako, badakitelako ez daukagula erreparatzeko denbora askorik, eta eskolak ahalik eta atseginenak egiten saiatzen direlako".

Ikasturtea amaitzear dago, baina jarraitzeko gogoz daude. Euren familiak hemen daude, beren bizitza eta etorkizuna ere hemen ikusten dute, eta euskara ikasi gura dute herrian ahalik eta gehien integratzeko. "Euskaraz berbetan dakidala hil gura dut" eman du azken epaia ikasleentako batek. ■



Altuna estankotan dago salgai liburua (16€)

Arantzazuko baserrietako bizi-ohiturak eta euskara ezagutu nahi dituenarentzat

Oñatiko euskara, historia eta kultura gaien inguruko interesa duten herriko gazte batzuek 'Gure Bazterrak' taldea sortu zuten duela hilabete batzuk. Oñatiko idatzizko ondarea batu eta berrargitaratzea da taldearen asmoetako bat, eta proiektu horren lehen fruitua da **Graziano eta beste...** liburua.

Ander Lizarralde osatu du liburua, Arantzazu auzoari buruz Aita Lasak, Graziano Anduagak, Kandido Izagirrek eta Luis Villasantek idatzitako testuen artean hautaketa eginda. Zenbait kasutan, egungo euskarara moldatu ditu testuak, eta hainbat ohar interesgarri ere egin ditu Lizarralde, testua hobeto ulertzeko eta hipotesi ezberdinak mahai gainean jartzeko.

Liburuaren lehen zatian, Arantzazu auzoaren historia azaltzen duen Aita Lasaren artikulua aurkituko dugu. Ondoren, Aita Villasantek Arantzazuko euskararen eta leku-izenen inguruan idatzitakoak, Graziano Anduaga 'Gesaltzako aitona'ren kontakizunak eta bertso onenetakoak (tartean, 'Basarri'rekin izandako bertso-liskarrak), Kandido Izagirrek auzoan jasotako berba eta esapideak, Bitoriano Gandiagak auzotarrei jasotako sinesmenak, Gaiztozuloko Señoriari buruzko kontuak... Lan interesgarria, benetan, Arantzazu auzoaz gehiago jakin nahi duenarentzat.

TicketBAI aplikazioa euskaraz jartzeko eskatu die Udalak herriko establezimenduei

2022ko urtariletik aurrera jarduera ekonomikoren bat duten establezimenduek **TicketBAI** sistema ezarri beharko dute. Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek sortutako fakturazio software honen bidez merkatari eta ostalariek sortutako fakturak automatikoki ogasunari bidaliko zaizkio eta, modu horretan, zerga iruzurra eragotzi nahi dute.

Kontua da, baina, **TicketBAI** sistema ezartzeko ogasuneko baimendutako aplikazio informatiko gehienak ez daudela euskaraz (149 aukeretatik soilik 34 dira euskaraz), eta horrek, jakina, atzerapauso handia ekar lezake merkataritza euskalduntzeko urteetan egindako lanean.

Horregatik, euskara normalizatzeko ahaleginean herriko merkatariak eta ostalariak giltzarri direla jakitun, udalak gutun bana bidali die herriko establezimenduetako arduradunei, **TicketBAI** sistema ezartzeko garaian euskarazko aplikazioak jar ditzatela eskatzeko.

TicketBAI proiektua euskararen normalizazioan beste pauso bat emateko aukera dela uste du Udalak, euskarazko aplikazioa instalatuz gero euskarazko fakturak egiteko aukera egongo baita.



oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK

ONDARE ARKEO-PALEONTOLOGIKOA IKERTU ETA ZABALTZEA HELBURU

Lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Udalak eta Alvaro Arrizabalaga oñatiarrak zuzentzen duen EHUko Historiaurreko Ikerketa Taldeak



Iaz hasi zen Oñatiko udala eta Alvaro Arrizabalaga prehistorialari eta arkeologo oñatiarra buru duen EHUko Historiaurreko Ikerketa Taldearen arteko lankidetzaz, eta orain sendotu egin nahi izan dute elkarlan hori, lau urterako hitzarmen markoa sinatuta. Oñatiko ondare arkeologiko-paleontologikoa jaso, aztertu, zabaldu eta babesteko helburuarekin sinatu da hitzarmena. EHUko ikerlariak Oñati inguruko kobak ikertzen jarraituko dute aztarna berrien bila, edo lehendik egindako aurkikuntzak berraztertzen, gaur egungo metodologia aplikatuz. Aurkitutako ondarearen gizarteratze lana, eta Arrikutzeko kobaren inguruan presta litezkeen ibilbide espezializatuen inguruko aholkularitza eta formazioa ere aurreikusten du hitzarmenak, besteak beste.



» **Bakardadea pairatzen ari den herritarren bat detektatuz gero, 688 679 667 zenbakira deitzeko eskatzen zaie herritarrei**

'Begirada Adia' programako arduradunek kasu bakoitza aztertuko dute, udal Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean betiere, pertsona horrek izan ditzakeen beharrak eta laguntzeko moduak jorratuz.

Horrekin batera, KAFE-GUNEAK izeneko topaketak antolatuko dituzte (*Bizipoz* kooperatibak dinamizatuta) bakardadean bizi diren pertsona horiek harreman-sare berriak sortu ahal izan ditzaten.

Oñatin, gaur egun, herritarren laurdenak 65 urte baino gehiago ditu, eta lehendik jakina bazen ere, pandemiak are ageriago utzi du, ugari direla bakardade egoeran eta laguntza beharrean dauden adineko herritarrak, baina arrazoi ezberdinengatik (ezjakintasuna, beldurra...) gizarte zerbitzuetara hurbiltzen ez direnak. Horregatik, garrantzitsua da herritar-sare aktibo bat sortzea, behar hauek identifikatzen laguntzeko.

Bakardadeari aurre egitea helburu duen **BEGIRADA ADIA** programa jarriko da martxan Oñatin

Bakardadean bizi diren pertsonak identifikatzeko herritar sarea osatu nahi da

Bakardade egoera nozitzen duten herritarrak identifikatu eta bizi-baldintzak hobetzea da Oñatin abian jarriko den BEGIRADA ADIA programaren helburua. Eta horretarako herritar-sare bat sortu nahi dute, *antena sozial* funtzioa egingo duena, bakardadean eta laguntza beharrean dau-

den herritarrak identifikatzen laguntzeko.

Antena funtzioa beteko duen gizarte-sarea osatzeko adineko pertsonak erabili ohi dituzten zerbitzuen (farmaziak, ile-apaindegiak, okindegiak...), Pake Leku, Lagun Leku, Duintasuna edo Ema-ñoña bezalako elkarleen, au-

zo-alkateen eta osasun zerbitzuen laguntza eskatuko da. Baina herritar arruntek ere egin dezakete antena lana, eta, beraz, bakardade egoera pairatzen egon daitezkeen herritarrak identifikatuz gero, 688679667 zenbakira deitzeko eskatzen zaie.

Halako abisuak jasotakoan

BIDEBARRIETA KALEAN LAU GARAJE PLAZA ERRENTAN EMATEKO DEIALDIA

Bidebarrieta kaleko 22an udal jabetzakoak diren lau garaje plaza errentan emateko deialdia egin du udalak. Garaje plaza irekiak dira, eta 13,25m²-ko azalera dute. Alokairu kontratua bost urterako izango da eta hilero ordaindu beharreko errenta 63,38 €-koa (BEZ barne).

Hemezortzi urte beteta, eta ibilgailu bat jabetzan duen edozein herritarrek parte hartu ahal izango du deialdian. Garajeak zozketa bidez esleitu dira, eta eskatzaile kopurua handiagoa bada, itxaron-zerrenda bat osatuko da, sor litezkeen bajak betetzeko. Maizterrak ezingo du inolako obra edo aldaketarik egin garajeen, aurrez udalaren baimena ez badu, eta bere gain hartu beharko ditu argia, garbitasuna, eta sarrerako atearen mantenuari dagozkion gastuak. Interesatuak, maiatzaren 24ra arteko epea dute eskaerak aurkezteko HAZ bulegoan, edo telematikoki.



Garaje plaza irekiak (13,25m²) dira, eta ordaindu beharreko errenta 63,38 € / hileko



Santxolopeztegiko bidegorria finantzatzeko hitzarmena

FAGOR INDUSTRIALEk, LANAK eta ULMak 10.000 EURONA IPINI DITUZTE

Oñati eta San Prudentzio arteko bidegorria eta Santxolopeztegiko industrialdea lotuko dituen bidegorri-adarraren finantzaketan parte hartuko dute Madalenen lantegiak dituzten Fagor Industrial, Lana eta Ulma kooperatibek.

Hain zuzen ere, enpresen eskaerari erantzunez erabaki zuen udalak bidegorri zati hau egokitzea, lantokira bizikletaz, patinetek edo oinez joan nahi duten langileei ibilbide segurua eskaini eta mugikortasun jasangarria sustatzeko helburuarekin.

Madalena ermitara doan galtzada eta antzinako gurdibide bat egokituta moldatu dute bidegorri-adar berri hau, ehun metro eskasekoa. Hartzeko galtzadako zorua berritu, lurrari eusteko horma eraiki, euri-urak batzeko sarea osatu eta argiteria instalatu dute. Gainera, duela 500 urte, San Francisco de Borja Madalenako ermitan bizi izan zen garaiko iturria ere berreskuratu dute.

Lanak 150.000 euroko kostua izan dute. Eusko Jaurlaritzak 47.500 euroko laguntza eman du, eta enpresek 10.000 eurona jarri dituzte. Gainerakoa udalak ordaindu du, eta bidegorriaren mantenua ere bere gain hartuko du.

Udalak eskertu egin du enpresek finantzaketan parte hartu izana, eta hauek ere oso positiboki baloratu dute bidegorria eraiki izana, langileei ibilbide segurua eta eroso eskaintzan dielako, eta mugikortasun jasangarria sustatzeko samurtasunak eta alternatibak eskaini behar direlako.

Auzoek gutxienez 4.000 euro jasoko dute 'Auzotasuna' programatik

Udalak 2013an sortu zuen 'Auzotasuna' izeneko laguntza programa, Oñatin dauden 16 landa auzoetako bizilagunen bizi-kalitatea hobetu, eta auzoaren izaera eta nortasuna indartu eta auzo-bizitza bizirik mantentzeko helburuarekin. Horretarako, udalak urtero 100.000 euro banatzen ditu auzoen artean, beraiek egoki ikusten dituzten jarduerak gauzatzeko. Orain arte, auzo bakoitzean erroldatutako bizilagunen eta baserri kopuruaren arabera banatu izan da dirua, eta aurrerantzean ere hala egingo da, baina auzo bakoitzak, gutxienez 4.000 euro jasoko dituela adostu da eta, horretarako, kontu saila 106.532ra igotzea onartu da. Horrenbestez, aurten honako diru kopurua egokitu zaio auzo bakoitzari: **Arantzazu** (5.796€), **Araotz** (8.690€), **Berezaio** (4.334€), **Garagaltza** (7.186€), **Garibai** (4.000€), **Goribar** (4.000€), **Larraña** (8.693€), **Lezesarri** (5.697€), **Murgia** (6.016€), **Olabarrieta** (16.879€), **Santxolopetegi** (4.000€), **Torreauzo** (4.000€), **Uribarri** (6.105€), **Urrexola** (4.000€), **Zañartu** (4.000€) eta **Zubillaga** (13.131€).

Selma Huxley ikerkea bekaren deialdia egin du udalak

Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpen ekonomiko, sozial, kultural edo politikoa balioan jartzea helburua duen **III. Selma Huxley Barkham** ikerketa beka emateko deialdia egin du udaleko Berdintasun sailak. Bekak 17.400 €-ko dotazioa du eta 30 egun balioduneko epea irekiko da proposamenak aurkezteko, deialdia GAOn argitaratzen den egunetik aurrera.

Gizarte zerbitzuen arloko elkarteei zuzendutako dirulaguntza deialdia

Oñatin edo eskualdean gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du udalak. Aurten 22.516 euro bideratuko ditu laguntza hauetara, eta 30 egun naturaleko epea irekiko da eskaerak aurkezteko, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera.



PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO ALDARRIA, MENDI TONTORRETATIK

MAIATZAK 8 'IZAN BIDEA' dinamikaren baitan, maiatzaren 8an Euskal Herriko 650 mendi tontorretara igotzeko ekimena jarri du abian SAREk, euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko. Oñatiri dagokionez, bost menditara igotzeko deia luzatu dute: **Aloña, Andarto, Arranoaitz, Artzanburu** eta **Orkatzategi**. Bakoitzak bere martxan egingo du tontorrerainoko bidea, eta 11:30etan talde argazkiak aterako dituzte mendi tontorretan.

GOTZON TELLERIAREN ASKATASUNA ESKATU DU SARE-K. ELA gaitz degeneratibo eta sendaezina agertu zaio Gotzon Telleriari eta, beraz, espetxeetako legedia aplikatuz, etxean behar lukeela adierazi du SAREk, gaitzari behar bezalako baldintzetan aurre egin ahal izateko. Telleria 2017an atxilotu zuten eta 30 urteko zigorra betetzen ari da. El Dueson (Kantabria) dago egun.

Euskal presoek urrunketa politikaren aurkako mozioa onartu du udalak

Duela 13 urte, Teruelen preso zegoen senidea bisitatzeraz zihola, errepide istripuan hil zen Natividad Junko gogoratzearekin batera, presoek urrunketa politikarekin premia amaitzeko eskatzen duen mozioa onartu du udalbatzak aho batez.

Ildo berean, iazko abenduaren 12an alderdi politiko eta sindikatu gehienek adostutako adierazpena berretsi du udalbatzak. Euskal presoek espetxeetako legedia arrunta aplikatzea eskatzen da. Gainera, Covid-19aren testuinguruan, bereziki, premiazkotzat jotzen da euskal presoak Euskal Herriko espetxeetan birkokatzea. Neurri horiek elkarbizitza demokratikoa eraikitzen lagunduko luketela dio adierazpenak.

Otsoak kontrolatzearen aldeko mozioa

Otsoa, arriskuan dauden espezieen katalogoan eta babes bereziko espezieen zerrendan sartu nahi dute Jaurlearitza Ingurumen sailak eta Espainiako Natura Ondarearen batzordeak, eta erabaki horrek ondorio larriak ekar ditzakeela uste dute EHNE eta ENBA sindikatuak, mendiko abeltzaintza estensiboaren amaiera eragin dezakeelako. Horregatik, otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa aurkeztu dute Gipuzkoako udaletxeetan. Oñatiko udalbatzak onartu egin du mozioa, EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin. Jeltzaleek mendiko abeltzaintzaren onurak azpimarratu dituzte. Gobernu taldeak ere abeltzaintza estensiboaren aldeko konpromiso tinkoa adierazi du, baina otsoa interes bereziko espezieen zerrendan sartzearen aurka ez joateko arrazoiak badaudela adierazi du (bioaniztasuna, ekosistemen oreka...). Edozein modutan, uste du euskal erakundeek otsoaren kudeaketarako plan berezia landu behar duela.

Oscar Terolen bakarrizketa, Covid-aren inguruko hitzaldi zikloa borobiltzeko

Covid-19a gure bizitzetan izaten ari den inpaktua ikuspuntu ezberdinetatik aztertzeko Osasuna eta Eskubideak taldeak antolatu duen hitzaldi zikloari amaiera emateko, Oscar Terolen '¡Por comentarlo! bakarrizketa saioa egongo da maiatzaren 11an (Santa Ana, 19:00). Bizi dugun errealitatearen errepaso egingo du Terolek, umore klabean. Sarrerak (10€) Txokolateixan eta Amalur Belardendan eskuratu ahal izango dira. Osasuna eta Eskubideak taldeak hitzaldi zikloaren balantze positiboa egin du, 700dik gora lagunek parte hartu dutelako sei hitzaldietan.



Herritarren elkartasuna eskertu du Hotz-Oñatik

8.610 kilo elikagai batu ziren Hotz-Oñati taldeak antolatuta apirilaren 16tik 18ra egin zen elkartasun kanpaina. Horren harira, Hotz-Oñatik eskerrak eman nahi dizkie ekimena aurrera ateratzen lagundu duten dendari, laguntzaile, bolondres, erosle... guztiei. Mediterraneoetik iristen ari diren albiste latzen aurrean elkartasuna inoiz baino garrantzitsuagoa dela gogoratu dute.

Euskal Herriko emakumei gorazarre

Historian zehar arrazoi bategatik edo bestegatik nabarmendu diren emakumeak gogoratzeko mikro-antzerkiak egin zituzten Elkar Heziko DBH-2ko ikasleek martxoaren 26an, herriko zazpi gunetan. Orain, maiatzean zehar, emakume edo kolektibo horiei buruzko panel informatiboak ipiniko dituzte



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Lanbide Heziketa OÑATIN



Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- ◆ Mekanizazioa
- ◆ Mantentze lan-elektromekanikoa
- ◆ Natur Inguruneko eta Aisialdiko Gidaria



Aurrematrikula

Maiatzak 31—Ekainak 18



ATEAK ZABALIK

Maiatzak 18, 18:30

Maiatzak 22, 11:00

Idazkaritza zerbitzua

Aurretik hitzordua hartu behar da
943 899 300

INFORMAZIOA

www.onati.net
info@onati.net
943 899 300



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

MGEP

MONDRAGON GOI ESCOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Román Ferrer García
Fabrikazio
Mekanikoko
Programazioaren
Produktzioa
2.maila DUAL



Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Mekatronika Industrialia
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

Ate irekien jardunaldiak

Maiatzak 29 - 11:00

www.mondragon.edu/gmhuz • orientazio.lhu@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683



Zergatik aukeratu zenuen Goi Mailako Ziklo hau?
Eta Zergatik MGEP?

Batez ere duen irteera profesionalagatik. Gainera, Euskadin enpresa asko daude fabrikazio mekanikoarekin zer kusi handia dutenak, eta batez ere Debagoienean. MGEP-n ikastea erabaki nuen ate irekien jardunaldi baten ondoren. Lanbide heziketako programak eta instalazioek konbentzitu ninduten. Gainera, bertan ikasitako familiarterko batzuen erreferentzia onak nituen eta ez nuen zalantzarik izan.

DUAL formazio programan ari zara. Azalduko diguzu pixka bat? Nire prestakuntza DUAL-a ULMA Packaging-en egiten ari naiz. ULMA Packaging-ek talentu, kalitate eta etengabeko hobekuntzagatik egiten du apustu, beraz nire praktikak bertan egitea eskaini zidatenean asko poztu nintzen. Eguneroko esperientzia oso positiboa ari da izaten, gaitasun handiko langileak dira eta egunero ikasten dut beraiekin elkarlanean.

Zer eskaini dizu enpresan praktikak egitea, bai pertsonalki bai ikasketak aldetik?

Ikuspuntu industrial batetik hain garrantzitsua den kalitatea, produktzio prozesuen hobekuntza eta berrikuntzarekiko apustua. Bestealde ikuspuntu pertsonal batetik talde lanaren garrantzia, geio produktzioaren hobekuntzan guztiz eragiten duena.

ULMA Packaging-en eginiko lanean, zikloan ikasitakoa erabili duzu?

Bai. MGEP-tik azpimagarriena, neureganatu ditudan zeharkako gaitasunak dira, eta baita ere bereziki lotura pertsonal eta profesionalak. Enpresako praktikek soberan gainditzen dute nik buruan neuzkan ideiak. Ikaskuntza jarraia delako, eta horrek profesionalki aurrera egitea ahalbidetzen dit egunero, hasieran MGEP-n neureganatutako jakintzetatik.



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Banderolarekin edo gabe, presoak etxera!

Izaro Elorza eta Xabier Igartua,
EH Bilduren udal taldearen izenean

Lerro hauen bitartez, lehenik eta behin, Ludaletxeko balkoitik presoan etxeratzea aldarrikatzen duen banderola kentzeko iritsi zaigun agindua publikoki salatu nahi dugu. Ez dugu ulertzen batzuek politika judizializatzeke duten zaletasuna, errekurtsio bidez gure lana etengabe oztopatzeke duten joera.

Argi ikusten dugu tankera honetako saiakerak helburu bikoitza dutela: herri hau iraganean kateaturik mantentzea, eta gure eguneroko jardunari trabak jarri eta horrelako tirabiretan indarrak galaraztea. EH Bildu indartsu ikustek min ematen die sektore batzuei, eta gurpilean makilak jarrita desanimatuko gaituztela uste dute. Oker daude.

Egoera aztertu ostean, banderola kentzea erabaki dugu, joko horretan erori eta katramilatzea delako, hain zuzen ere, haiek bilatzen dutena. Hala ere, EH Bilduren udal taldetik bakea eta bizikidetzaren aldeko gure apustu eta konpromiso irmoa berresten dugu. Bada ordua Euskal Herriak gatazka armatuaren zikloa ixteko eta zauriak josteko, eta zentzu horretan, preso eta erbesteratuen etxeratzeak berebiziko garrantzia du. Bide batez, herritarrei dei egiten diegu aurrerantzean ere preso eta iheslarien aldeko aldarrikapenekin bat egiten jarraitzeko.

Agur Juan Karlos. Bidai on eta egun handira arte!

Loli Ordoki, Xabier Ugarte eta Jesus Mari
Aramburu

Apirila honen 22ean Juan Karlos Irizar, musikagilea eta laguna, joan egin zaigu, eta lehenik eta behin, gure doluminak helarazi gura dizkiegu bere etxekoei. Artikulu hau sinatzen dugunok honako gomuta-ariketa hau egin dugu. Gutariko bakoitzak ezagutzen bagenuen lehenagotik ere, duela ia 40 urte, lanean edota musika-taldetan eta abesbatzean berarekin ordu asko partekatu genuen. Garai

haietan berarekin bizitutakoa eta sentitutakoa oroitu gura dugu hemen.

82ko neguan izango zen, abesbatzean Aita Madinaren "Arantzazu" poema sinfonikoa entseguetan hartu genuela, Oñatiko Udalaren laguntzaz, diska bat grabatu behar genuelako, Juan Karlosen zuzendaritzapean, eta Barzelonan, hango "Orquesta Ciutat de Barcelona" delakoarekin. Imanol Murua zuen abesbatzaren ardura, eta hor aritu ginen burubelari obra ikasten. Oñati Abesbatzak eta Oñatiko eta Elgoibarko Parrokietako kideek gertatu genuen lan osoa, poema osatzen zuten 12 zatiak. Bakarkako lanak egiteko, Loli Ordoki, Imanol Murua eta Elgoibarko Angelo Iriondo zeuden. Eta dena ondo preparatu ondoren han abiatu ginen Barzelonara grabaketa egitera. Ordurako Juan Karlosek, aipatutako orkestrarekin hitzartu eta grabatua zuen orkestrako lan osoa Gema 2 grabaketa etxean; kantariok atzetik grabatu behar genituen geure ahotsak. Horrela egin genuen, egun bat osorik hartuta, goiz eta arratsalde. Ondoren, grabaketa-etxeko teknikariak (Joan izeneko mutil gazte batek), Juan Karlosekin nahasketak egin, eta dena gertu utzi zuten diska argitaratzeko. Imanol arduratu zen diskaren testuarekin. Eta ekainaren 1ean, diska kalean zela, Oñatiko Unibertsitateko areto nagusian aurkezpen ekitaldia egin genuen. Mahaian, Eli Galdos Oñatiko alkatea, J.A. Arana Martija musikaria, historialaria eta euskaltzaina, Iñaki Zumalde historialari oñatiarra, Imanol Murua Oñati Abesbatzeko zuzendaria, eta Juan Karlos Irizar, grabazioko zuzendari eta arduradun nagusia. Diska hau, geroago (15 urte geroago), CD formatura pasatu eta berrargitaratu genuen, arrakasta ederra izanez, gainera.

Hau dena eta beste gauza asko gogoan genituela pentsatu genuen: Mutil hark ze adore zeukan! Bartzelonara joan, orkestra kontratatu, particellak banatu, entseguak egin eta grabatu, eta ondoren, abesbatzak eraman, eta orkestraren gainean ahotsak ipiniz, diska duin bat argitaratu. Hau dena bere osotasunean neurtzeko orduko mentalitatera jarri behar da, orduko ikuspegira eta garaietara. Baina Juan Karlosek zuzenduta egin genuen

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Gora Oñatz!

📷 Ditxosozko pandemiak hankaz gora bota zituen Oñatz dantza taldearen 50. urteurrena merezi duen moduan ospatzeko aukera, baina sarri esan ohi duten moduan, dantzariak plaza du maite, eta hasi dira berriz ere ekitaldiak antolatzen. Martxoan dantza jantzi erakusketa ederra antolatu zuten, eta apirilean dantza erakustaldi bikainaz gozatzeko aukera egon zen. Eta etorriko dira gehiago. Gora Oñatz!



ASIER EGAÑA

lana eta ateratako produktua oso duina dela pentsatzen dugu.

Gero, "Donosti Romantico" etorri zen. Jesus Marik lagundu zion bajuarekin, eta Xabierrek piezaren batean gitarra klasikoarekin, diskoa grabatzen. Hortik aurrera Juan Karlosek bide hau aukeratu zuen bizitzeko. Musika, erromantiko moldekua, melodia gozokoa, belarritik errez sartzen den horietakoa. Hortxe sentitzen zen gustora, eta bide horretan 30tik gorago diska egin zituen. Eta ez hori bakarrik, horri erantsi behar zaizkio umeendako egindako musikak, argitaratutako partiturak, bandak eta abesbatzak zuzentzen emandako urteak, eta eskuzabaltasun osoz, Aita Mennin eta Oñatiko Erresidentzian musika terapia moduan erakusten emandako urteak. Bere lan osoak zehazteko gu baino gehiago dakitenak egongo dira eta beraiei utziko diegu.

Juan Karlos, harremanetan eta bere lanean lagunak egiten zekien persona izan da, eskuzabala, entusiasmoa gainezka zeukana, simpatía haundikoa eta dena ematen zuena. Ez dugu gehiago ikusiko, baina berarekin bizitutako garaia gomutatzen geundela esan genuen: **Agur Juan Karlos. Bidai on eta egun handira arte!**

Martin Mendizabal Mujika

Jerardo Elortza

Duela aste pare bat joan zaigu Martin Mendizabal Arantzazuko fraidea (1933-2021). Oñatin ezaguna zen Zaldibian jaiotako frantziskotar hau, urte askoan jardun baitzuen Araotzeko parrokan erretore-zereginetan. Baina are ezagunagoa genuen historialari gisa. Aldizkari eta liburu askotan argitaratu zituen bere ikerlanak, Gipuzkoako hainbat komentu eta monasterioei buruzkoak gehienak. Guk hemen gure herriari dagozkionak nabarmenduko ditugu: liburuen artean **Araotz. Albiste eta ohiturak / Historia y costumbres** (1993) eta **Las monjas de Santa Ana de Oñati. Cinco siglos, tres casas, una misión** (2002) lan mardula; eta artikuluetatik **Origen de los franciscanos en Oñati** (1999) edota **Arantzazu y las monjas franciscanas de Euskal Herria en el siglo XX** (2001). Mila esker Martin, Oñatiko historiari egin diozun ekarpenarengatik.

Juan Carlos
Irizar
musikagilea
zendu da



Sortzez Zubillaga auzokoa zen Juan Carlos Irizar musikagilea hil zen apirilaren 22an, 69 urte zituela. Oñatin hasitako musika ikasketak Donostian, Madrilen, Pauen eta Erroman osatu zituen. Bartzelonako Liceukoa, Paueko kontserbatoriokoa eta Erromako Santa Zezilia akademiako orkestrak gidatu zituen, eta hainbat abesbatza eta musika banda ere bai. 1981ean grabatu zuen bere aurreneko diskoa (Donosti Romántico) eta gerora beste 35 bat lan plazaratu zituen piano eta orkestrarako. Film, antzerki, ballet eta jaialdi ezberdinetarako musika ere sortu zuen.

JUANJE MARGOAK
T. 627 818 247

amaia igartua
arkitektura
IGOGAILUA ETA FATXADAN ISOLATZAILEA JARRI NAHI?
RENOVE DIRU LAGUNTZAK MARTXAN
tel: 677 31 20 57 email: amaiigartua@gmail.com



Gure ekintzen berri emango duen atala...

Anime, Manga, Cosplay, ... Japan Weekend

Lerro hauen bidez burutu nahiko genukeena kontatzera gatoz, ondoren burutzen ez badugu kontuak eskatuko dizkiguteren arriskupean bada ere.

Gaztelekuan, 7 urtetatik 16 urte bitarterako herriko neska-mutilekin egiten dugun lan. Gizarte hezitzaileak gara, bertan esku-hartzen dugun profesionalak. Aisialdian (denbora librean) haur eta nerabeen gaitasunak garatzeko asmoz, eta hauen motibazioetatik eta konfiantzazko harremanetik abiatuta, Oñatiko haur eta nerabeen indar-guneak garatzen saiatzen gara. Lan modu honetatik erantzun ona jasotzen dugula esan dezakegu, eta egia esan dugun parte-hartzea pozik egoteko modukoa da.

Guregana Gaztelekura, ekintzetara, edo irteeretara datozen nerabe hauekin esku-hartzen dugu. Baina guregana gerturatzeko ez diren haur eta nerabeez hitz egitea ere gure lanaren helburuetako bat da. Hau da, gerturatzeko ez diren adin txikiko hauek izendatu eta zergatik ez datozen ikertzen saiatzen gara. Euren egoeraren berri jakin nahi izaten dugu, ea egonezinen bat edo sufrimenduren bat daukaten, betiere, lagungarri izateko helburuarekin. Adin txikiko batzuen sufrimenduren arrazoiak ezberdinak izaten dira: bakarrik sentitzen direlako, harreman ez egonkorrak dituztelako, edo harreman gatazkatsuek dituztelako,...eta hori gertukoekin duen interakzioan azalarazten da adin txikikoaren egonezina.

Nolabait azken puntu honekin lotuta, hau da, bakarrik dauden haur eta nerabeen harira, Japoniar kulturatik sortzen diren produktuek nerabeak erakartzeko duen ahalmenak gure arreta bereganatu du. Marraski bizidunak (animeak) dira, mangak (komikiak),...hezitzaileoi oso arrotza zaizkigu orokorrean, baina esan bezala gaztetxoak izugarri erakartzen dituzte produktu hauek. Nolabait identitatea eraikitzen dabilzan nerabeak anime eta manga hauetan dauden pertsonaiekin bat egiten dutela konturatu gara, eta haien garapen psiko sozialean marraski bizidun hauen identifikazioak eragiten duela ere sumatu dugu. Ez dira izaten gazte "popularrak", arrarotzat jotzen dituzte besteek, eta kasu batzuetan haurtzaroen nahiko bakarrik egon diren nerabeak izan daitezke japoniar kultura honen inguruan batzen direnak. Etxean denbora asko pasatu duten neska mutilak izaten dira batzuetan, bideojokoetan denbora asko jolastutakoak,...hala ere ilusioz behatzen dugu kasu batzuetan bakarrik dauden nerabeak identitate berri hauen inguruan batzen direla eta honen inguruan sortzen ari den mugimendua gero eta indartsuagoa dela ikusirik. Aipatzeko, hemen inguruan, Barakaldoko BEC-en Japan Week-a antolatzen dela urtero, eta milaka nerabe bertaratzen direla. Holakoetan gainera ohikoa eta gustukoa dute pertsonai ezberdinez mozorrotzea (Cosplay).

Esan bezala kosta egiten zaigu hezitzaileoi ez-ezagutzatik mugimendu hau sakonean ulertzea eta azaltzea baina identifikazio, nortasun, talde nortasun eta harremanetarako eran gaztetxo batzuen artean daukan indarrak gure arreta deitzen du, Oñatin ere badugulako zaletasun hau duen gazte talde eta norbanako ugari. Honenbestez, Gaztelekuan zaletasun honen inguruan jardunaldi edota astebururen bat antolatzea dugu buruan, Japan weekend, eta Oñatikoak eta inguruetako herrietan afizio hau duten gaztetxoek topagune bihurtu nahiko genuke Oñatiko Gaztelekua asteburu batez besterik ez bada, interesgarri ikusten dugulako horrelako gaztetxoei ere euren espazioa eta behar duten arreta eskaintzea. Hori bai, egoerak baimentzen duenean.

> GAZTELEKUKO GELAK IKASTEKO

Gaztelekua ikasteko erabiltzeko aukera zabalik dagoela gogoratu nahi dugu. Azkenean herriko liburutegiko ordutegiak gazteentzako hainbatetan murrizak dira. Bestalde, Gaztelekuan bilera gelak, Wiffia, eta behar izanez gero kalefakzioa ere badagoela kontuan hartuta, aproposa ikusten dugu Gaztelekua itxita dagoenean ere bertan ikasteko aukera izatea. Beti ere honako baldintzekin:

- Gaztelekua erabiltzeko eskaera, ahal dela idatziz egingo da, eta soilik ikasteko erabiliko da.
 - Gaztelekuan sartzeko eta gero irteteko baldintzak Gaztelekuko Hezitzaileekin lotuko dira. (Giltza behar duten ala ez, eta abar).
 - Oñatiko Udalaren aurrean, eskaera egiten duen pertsona bertan egongo den taldearen erantzulea izango da.
 - Uneoro indarrean dagoen Covid arauak bete beharko dira.
- Beraz Gazteak badakizue; Gaztelekuan ikasteko gela behar izanez gero, etorri eta lasai eskatu!

Ni ere gaixotu nintzen!

I. Aitor Sarasua bertsopaper sariketako helduen sailean hirugarren saria jaso zuen bertso sorta



Egilea: **Urko Egaña Calderon**
Doinua: **Mari Errauskin (II kantatzeko)**

1.- Barkatu, Covid-19ak ez nau kohibitzen, zeren tamalez gaitz horrek soilik ez du existitzen! Neure zilborra ukitzen ta barrunbeak trunkiltzen orain hasi naiz, baina lehenago hasi behar nintzen. (Bis)

3.- Goizean goizik ia ez nintzen ohetik jaikitzen, ez banituen aurrez eskuak lurrean ipintzen! Nahiz ahalegindu mugitzen ez nintzen kapaz sentitzen! Laguntza eskatu eta berriro oheratzen nintzen. (Bis)

5.- Urte errazak izan direnik ez zait iruditzen, bere denbora behar delako zikina garbitzen. Zer erreza den amiltzen! Ta zeinen zaila zutitzen... Argi izpi bat ikusterako berriz jausten nintzen. (Bis)

8.- Diagnositan aipatutako zenbait artritisen sintomak ziren nituen gaitzen izen ta abizen. Nola gihar hala mintzen motorrak neuzkan gelditzen! Ta ni lehenengo arrankerako izorratzen nintzen. (Bis)

2.- Bihotz barrutik ateratako errima ta hitzen bidez nahi nuke saiatu negar-zotinak isiltzen. Zutik egoteak mintzen ninduelako sufritzen nuen, ta zulo sakon batean hondoratu nintzen. (Bis)

4.- Gerora, hankak gisan gerria pixka bat arintzen hasiagatik gero egunak ez zuen argitzen! Oinez hastean ibiltzen ez nuen minik gaingitzen! Ta ondorioz sarri etxean geratu ohi nintzen. (Bis)

7.- Besteak beste Logroño, Irun, edo Biarritzen nituen minei buruzko zenbait diagnosi biltzen ta iritziak aditzen aritu arren berdin zen, zeren etxera irten bezala itzultzen bainintzen! (Bis)

10.- Minez gaudela ez da erreza pozarren bizitzen, baina bizitzen asmatuz gero gaude pozak hiltzen! Ez zait buruan kabitzen zaila baita entenditzen, gaur nola aurkitzen naizen ta atzo nola egon nintzen! (Bis)



MANU FERNÁNDEZ
ERABILTZAILEA

«Bizkarreko min askorekin nengibilen gehiegizko pisuaren ondorioz»

«Egoera fisiko guztietara egokitzen den entrenamendu mota motibagarria da»

«Ohiturak osasuntsuak hartu eta saio havei esker, 33 kilo galdu ditut. Arinago eta indartsuago sentitzen naiz orain»

ENTRENAMENDU FUNTZIONALA

Gorputz osoaren mugikortasuna eta indarra hobetzeko ariketak

BAKARKA · TALDE TXIKIETAN



INFORMAZIO GEHIAGO:

San lorenzto 54
T. 943 53 32 99 | M. 652 712 123
eratu@euskalnet.net

www.eratufisioterapia.com



JOSEBA BRIÑAS
ERABILTZAILEA

«Makina edo tresnarik erabili gabe, nire gorputzarekin entrenatzen ikasi dut orain»

«Ez nuen entrenamendu mota hau ezagutzen. Gorputz osoa lantzeko metodo bikaina da»

«Indarra, malgutasuna eta zure gorputzarekiko kontzientzia ematen dizkizu. Errutina erroz eta atsegina da»

ZER DA ERREFUXIATU IZATIA?

Asier Guridi Zaloña / Euskal iheslari politikoa



Idatzi hau motza egin nahiko nuke; baina urte hauetako gauza asko aipatu gabe utzi arren, badira beste gauza asko derrigorrez aipatu beharrezkoak; batez ere azken urte hauetan bizi dudan egoera ulertu dadin nahitaezko kontakizuna...

2001 urtean etxetik alde egin beharrean izan nintzen berriro esperepetxeratu izateko aukera ekidin nahian eta era berean Estatu Espainiarraren errepresioari beldur erbestera bidea hartu beharra izan zen... 2004-2005an heldu nintzen Venezuelako Errepublikari Bolibariarrera; hasierako urteetan beste pertsona baten nortasunaz beste pertsona normal baten bizitza ia egin ahal izan nuen; banketxetan kontua izanez eta lanbideak izatea ere posible eginez. Hasiera batean mototaxista bezalako lan xumea izan nuen herriko geruza xumeenarekin batera bizitza eginez; ogibide horretatik alokatutako apartamentua ordaindu eta bizibidea egiteko aukera ere izaten nuen. 2008ko uztailaren 21ean jaio zen Iban nire semea, eta ordurako motoa albo batera utzi eta taxi lanetan hasi nintzen; goizaldetik gaueraino auto gainean alde batera eta bestera bizibidea eginez... Urte hauetan hil zen auto istripuz niretzako babes berezia zen anaia; 2006ko abenduan niri helarazteko pakete bat Deba Garaian utzi eta Gasteizera bidean hil zen; horren eraginez familia barruan osasun mailako arazoak agertu ziren; urte luzeetako tratamendua suposatu duen gaixotasuna.... (niretzat bederen dispersio politikak istripu bidez eraildako familiarren antzeko pisua izan zuen heriotza).

2013ko irailaren 19an Venezuelako Turmero hirian nire semea bere bigarren eskola egunera neramanean *Interpol* izeneko polizia atxilotu ninduen. Une horretatik aurrera nire benetako izenaz bizitza egiten hasi nintzen eta horrekin batera nire infernua hasi zen... Venezuelako gobernuaren erabakiz *Interpol*-ek lurralde honetako inteligentzia zerbitzuen esku utzi behar izan ninduen eta *El Heli-coide* izenez ezaguna den espetxean izan ninduten preso. Espetxe barruko tratua eta bizi-baldintzak txarrak izan ziren eta horrek 19 eguneko gose-egari greba egitera eraman ninduen; Sebinekomi-sarioekin akordio batera heldu eta handik bi egunera askatu egin ninduten.... Denbora guzti horretan ez zen etorri Euskal

Herriko abokaturik eta inork ez zidan nire egoera juridikoa zehatz azaldu. Denbora horretan ez zitzaion eman nire emazteari zegokion hileroko dirulaguntza (laguntza baino gehiago, hileroko babesa izango zutenaren segurtasuna) eta itolarri sentitzean ordurarte nire lanabesa zen autoa ere saldu beharrean izan zen.

Espetxean nintzelarik nire emazteak Venezuelako Atzerri Ministeritzaren aurrean asilo eskubidea eskatuz idazki bat aurkeztu zuen eta gaurdaino ez dugu erantzunik jaso. Askatua izan bezain laster, preso nintzelarik nire askatasuna eskatzeko osatua zegoen taldearekin elkartu nintzen, eta talde horrek handik aurrera nire nortasuna eta babesa lortzea helburu izan behar zuela erabaki zuen. Talde hau Venezuelako ezkerreko talde eta alderdi ezberdinez osatua zegoen; eta era berean talde honetan erabaki zen nik 1992ko atxiloaldian jasandako tortura eta espetxealdiko jipoi ezberdinen testigantza ere Atzerri Ministeritzan aurkeztutako asilo eskaerari gehitzea....

2014ko apirila aldera etorri zen senatari eta abokatu bat eta Caracaseko Alba hotelera deitu ninduen. Pertsona honek asilo eskubidearekin ez jarraitzeko eta geldi jarraitzeko agindu zidan; beste alternatibarik proposatu gabe eta erabaki horrek eragingo zituen ondorietan erreparatu gabe. Pertsona honek ez zidan eman inolako azalpen juridikorik nire kontra irekita zeuden kasu juridikoen inguruan... Azalpenik ez, Madrilen izaniko leherketa batzuen inguruan zergaitik nengoen bilatze ta atxilotze agindupean; azalpenik ez, Frantzia ea zergaitik nengoen zigortua edo nolatan zigortu ninduten ni bertan izan gabeko epaiketan; azalpenik ez, Estatu Espainiarrean betetzeke nuen zigor zati baten inguruan.... Eta zergaitik Asier Guridiren kasuan asilo eskaera 2014. urtean gelditu eta gero, 2016an Nekane Txapartegi euskal iheslari politikoa Suitzatan atxilotu zutenean harentzat eskatu?... Senatari eta abokatu honen agindutik denbora gutxira Oñatin Arrano elkartearen bilera bat egin zen nirekiko elkatasuna eta babesa mozteko gezurrak zabalduz; nire bizitokiaz eta bizimoduaz ideiarik ez duten Antzuolako pertsona batzuk ere bertan izandu ziren gezurrari sinesgarritasuna eman nahirik: dena jauja

edo dena *Chichiriviche* denaren irudi faltsua zabalduz....

Hemen hasi zen gaur egun oraindik ere bizi dudana infernua. Nire izenaz bizitza egiten hasi nintzen, baina inolako euskarri edo dokumenturik gabe; babesik gabe, bermerik gabe eta bizimodua egin ahal izateko ahalmenik gabe. Kanean laranja zukuak salduz bizimodua egitea ere eragotzi zitzaion eta kaletik ateratzeko jakinarazpena eman zidaten. Supermerkatu publiko eta pribatuetan erosketak egiteko nortasun agiri nazionala eskatzen hasi ziren eta nik halakorik ez nuen hainbat supermerkatuetan ez zidaten saltzen jangai eta bestelako erosketarik. Debitu txartelik ezin eduki; gidatzeko agiririk ezin izan; telefonoko lineak nire izenean ezin izan; mensajeria edo errekadista bidezko bidalketak nik edo nire izenean ezin egin... Azken urteetan futboleko entrentatzaile gisa aritu naiz eta iaz kurtso bat egin behar; baina nortasun agiririk ez nuelako ezin izan nuen kurtso hori egin eta orain ez didate uzten txapelketa batzutan, entrenatzen ditudan haurrak zuzentzen...

Eta bai, horrelako egoeran gastu ekonomikoa ikaragarria da. Etxean bizi nuen osasun egoeran lagungarri izango zela lakoan Iban eta bere ama 2011ean Oñatira bidaltzen saiatu nintzen, baina Estatu Espainiarreko migrazio sailak Barajaseko aireportuan 24 orduz atxiki eta Venezuelara bueltatu zituen... Bi hauek Oñatira iristea garrantzitsua zenez, beste bidaia bat ordaindu eta Parisetik barrena bidali ahal izan nituen Oñatira.... Esan beharrik ez, 2005etik bederen ez dudala inolako hilabetereko edo dirulaguntza ofizialik jaso izan eta lagunaren edo familiarren laguntzarekin egin behar izan dudalaa bizimodua... Eta bai, 2008an Iban jaio behar zenean auzune txiro batean zinkeko xafladun teilatua duen etxe xume bat erosi genuen; eskerrak erosketa hori garai horretan egin genuela; ze ordurarteko hileroko alokairuak ordainduz ezingo nintzateke heldu, batez ere azken urte hauetako nire egoera eta Venezuelaren egoera kontuan hartuz. Aipatu etxeari, nik neuk igeltsero lanetan parte hartuz hainbat hobekuntza egin dizkiogu eta horixe da azken urte hauetako bizitoki bakarra....Euri garaian kanean urak gora egiten du eta ura etxe barruraino sartzen da; altzariak, elektratesnak eta paretak hondatzen ditu; etengabe ateko murua altxatzen; paretak babesteko zeramika zaharra jarri... Eta bai, 2005tik gaurdaino hainbat saiakera egin dira gure paperak

txukuntzen eta lege barruan jartzen ere; askotan emaitzarik gabeko saiakerak izan diren arren, gastu ekonomiko itzela suposatu izan dute....

Batez ere 2014tik egoera ba gogorra izan da, ezin diru iturririk izan.... 2013ra arte nire etxean ikasleei logelak alokatzten nizkien eta prentsan nire atxiloketa ikusi zutenean, etxeko altzari, hozkailu, sukalde eta abarrak lapurtuta alde egin zuten.... Azken urte hauetan lagun batzuen eta familiaren babes ekonomikoari esker bizi izan naiz; diru iturria suposatu ahal duen lanik ezin eginik eta gastuak handiak izanda.... 2017an semeari bi txorkatiletan ebakuntza egin behar izan zitzaion eta gastu handia suposatu zuen....

Niretzat nire semea maletadun haurra da; atzerrian beste nortasun batekin jaiotzea ez da gauerdiko eztula; aitaren atxiloketa bortitza bizi izan zuen; aita preso eta gose-egarri greban nola ahultzen zen ikusi zuen; Espetxeko zaindarien nola arkatza eta papera sartzen ez zioten uzten bizitu zuen; aitakin autobusetan zebilelarik autobusetik jaitsi eta mila azalpen eman beharrean nola izaten ziren bizitu zuen; nortasunarekin izan dituen

hainbat arazo ere hor daude; aitarekin supermerkatuetara erosketak egitera joan eta erosketak ezin egin.... 2011n Euskal Herrirako bidaian, Barajasen Espainiar polizia 24 orduz erretentuta egon eta Venezuelara itzulia izatea... Eta gaur egun Oñatin, bere herrian Venezuelar jatorriko etorkin irregular bezala dago; honek beldurra eta ezinegona eragitetik aparte, beste zalantza batzuk ere eragiten dizkio; adibidez, eskolako klaseko ikasbidaira ezin joan ahal izatea; DBH2 amaitzen duenean titulua emango ez diotenaren aukera; bekak izateko bete beharreko eskaera orria ezin bete ahal izatea egoera irregularren ondorioz...

Eta zergaitik Iban ezin zaio eman espainiar naziotasuna? Ba, hasteko, aita ihesean apatrida egoeran dagoelako eta aitak aurkeztu beharko lukeelako jaiotze agiria Caracaseko Espainiar kontsulatuaren aurrean. Baina 2020ko irailaren 30ean eta urriaren 5ean, Caracaseko Espainiar Kontsulatuak aitari nortasun eskubidea ukatu zion eta pasaporterik gabe, nortasun ofizialik gabe utzi zuen.... Bestalde aita berme gabe, babesik gabe eta nortasun ofizialik gabe egotean, ezin izan du oraindaino Ibanen nortasunaren

inguruan egin beharreko zuzenketak egin; azken finean asilo politikorik gabe gelditu behar izatearen soka eta ondorio luzea....

Eta ez, hau ez da orain amaitzen; ez dut Estatu zapaltzaileetako espetxeak borondatez zapaltzeko inolako asmorik; baina nire nortasuna eta nire familiaren egoera zuzentzeko eginahal guztia egiteko prest nago. Nire nortasun arazoa Espainiar kontsulatutik eta Venezuelako Errepublikako Bolibariarretik zuzendu eta normalizatu daiteke; nire semearen nortasuna zuzentzeko funtsezkoa da aitaren nortasuna zuzentzea; eta epe labur-ertainean gure egoera normalizatzeko gogor borrokatzeko prestutasuna agertzen dut.

Oso argi dut Euskal Herria independente eta sozialista baten alde harturiko konpromisoagatik mendekatzen nautela eta, adibidez, Estatu Espainiarrak berez oinarritzko giza eskubidea besterik ez den nortasun eskubidea ere ukatzen didala. Argi dut ere hainbeste urtez borrokan aritu ostean orain ez dudala nire ideiak aldatuko;...duela 25 urteko helburu berdinekin Euskal Herria aske eta euskaldun baten alde jarraituko dut eta hori ez dut inolako txantaiarengatik aldatuko. ■

Izan jasangarri

#Izanjasangarri

Eguneroko bizitzan, ohitura aldaketa txikiek, gure bizitzetan aldaketa nabarmenik suposatzen ez badute ere, ingurumenean epe ertain eta luzean, aldaketa positiboak dakartzate

kontsumojasangarriaonati@tutanota.com

Kontsumo jasangarri taldea

Hileko proposamenak Maiatza



Kontsumo jasangarria gauzatzeko ekintza bat:

Eta zuk, zer egiten duzu mundu hobe baten alde? Ze aldaketa egin dituzue etxean? Bidali zuen gomendioak gure helbide elektronikora eta irakurleei ideia berriak ematen lagunduko diguzu!

<https://yocolaboroconelmedioambiente.es/datos-curiosos-de-la-contaminacion-ambiental/>



Kultura jasangarriaren txokoa:

Aldaketa (Ivan Mata. Edit. Alberdania SL.): Oñatiko liburutegian aurkitu dezakezen ipuin honek modu grafiko eta errazean erakusten die haurrei gizakiaren erruz mundua nola aldatzen ari den. Etxeko txikienei egoera azaltzeko bikaina.



Kontsumo jasangarriari buruzko datua:

Gutako bakoitzak, urtero, 300kg zabor sortzen ditu batazbeste. Ikaragarria, ezta? Zer egingo duzu zuk datu hau jaisten laguntzeko?



Ekimen jasangarri bat:

Ekimen ezberdinetan parte hartuz asko egin dezakezu. Herrian bertan egiten direnetan parte hartzen duzu? Erreka garbiketa, hitzaldiak, bigarren eskuko azoka, herriko baserriar eta artisauen produktuak erosi... Zuk zeintzuk egiten dituzu? Kontaktuko diguzu?

Antxintxika Triatloi Egokituko sailak **BAZKIDE LAGUNTZAILE** kanpaina ipini du martxan

Orain dela urte eta erdi sortu zen Antxintxika Triatloi Taldearen baitan Triatloi Egokituko Saila, eta 2020a urte zaila izan den arren (konfinamendu egoerak, bertan behera geratutako lehiaketak...) Antxintxika taldekoak ez dira geldi egon, eta hainbat erronka gainditzea lortu dute. Horren erakusle da Joseba Azkaratek Oñatiko duatloian eta Avilesean jokaturako Espainiako txapelketan parte hartu izana, antolatzaile, epaile eta federazioko arduradun asko zur eta lur utziz, oñatiarrak erakutsitako gogoia, ilusioa eta sufritzeko gaitasunarekin.

HAZTEN JARRAITU

Antxintxika taldean oso garbi daukate, kirolak, oro har, eta triatloioi/duatloiak bereziki, osasuna hobetzen laguntzen duela. Joseba da horren lekuko; azken urtean nabarmen hobera egin du bere osasunak, eta autonomia maila handiagoa lortu du.

Horregatik, kirol egokituko saila sendotzen jarraitu nahi dute Antxintxika taldean, arazo fisiko eta psikikoak dituzten gazte eta helduei kirola egiteko aukera eskainiz. Laster, muga funtzional ezberdinak dituzten lau kide gehiago batuko dira taldera, baina, horretarako, diru baliabideak behar dituzte, gorpil-aulki berriak erosi eta errehabilitazio lanarekin jarraitu ahal izateko, besteak beste.

Helburu horrekin, 'IZAN BAZKIDE LAGUNTZAILE' kanpaina jarri dute martxan. **BAZKIDE** (30€/urtean) egiten denak hiruhilabetero egingo den zozketetan parte hartuko du (urte amaieran zozketa berezia), eta deskontua izango du Antxintxikaren kirol materialean promozioetan (%10) eta klubak antolatzen dituen kirol ekitaldietan (%20); klubaren urte amaierako urtekaria ere jasoko du. **LAGUN** (15€/urtean) egiten direnek, %10eko deskontua baliatu ahal izango dute kirol materialen promozioetan, eta urtekaria ere jasoko dute. Baterako zein besterako, bidali mezua **TXOSKE@YAHOO.ES** helbidera.



JOSEBA BERMEJO

Eibarren atezain



Joseba Bermejo Mager, 16 urteko atezain gaztea, Eibar taldean jokatzeko ari da. Aurretik, Realeko Infantil mailako taldearekin ere aritu izan da entrenamendu saioak egiten eta zenbait txapelketa jokatzeko (Nojan, Bartzelonan, Galizian eta Frantziako besteak beste).

Iazko maiatzeko talde armaginarekin deia jaso zuen, eta baiezkoa eman zion, ikasten jarraitzeko helburuarekin.

Kadete mailako txapelketa nagusian jokatzeko ari da, Euskal Ligan. Pandemiak baldintzatutako urte honetan, txapelketa berezia jokatzeko ari dira, talde gutxiago banatuta, eta beraien taldeko sailkapeneko buruan daude. Hurrengo fasean beste multzoetako txapelketen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Ohi baino partidu gutxiago dituzten arren, gogor entrenatzen ari dira. Asteazken egunetan joaten da Eibarrera, eta asko ikasten ari dela dio. "Hanka-jokoa hobetzeko lan asko egiten dugu, eta atzelarietako komunikazioari ere garrantzia handia ematen diote".

Ez da erraza 16 urteko mutil batentzat asteazken egunetan Eibarrera joatea. Bere sakrifizioa eskatzen du, baina oraingoz oso gustura dago; ikasten jarraitzeko gogoia eta ilusioa badu, eta, jakina, gustuko lekuan aldaparik ez. Bi urterako kontratua sinatu du, eta okerrik ezean, datorren urtean Jubenil mailan ariko da.

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

UDAKO KIROL KANPAINA



MAIATZAREN 19tik 24ra EGIN BEHAR DA IZEN-EMATEA

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra egingo da aurten udaleko Kirol departamentuak antolatzen duen UDAKO KIROL KANPAINA, edukierak mugatuta eta komeni den osasun neurri guztiak hartuta. Bi txanda egongo dira: lehenengoa ekainaren 28tik uztailaren 9ra, eta bigarrena uztailaren 12tik 23ra.

Jende pilaketak saihesteko asmoz, izen-ematea online egiteko aukera egongo da zubikoakiroldegia.oñati.eus helbidean. Kiroldegian ere eman ahal izango da izena. Bakoitzak gehienera hiru ekintzetan eman ahal izango du izena. Jarduera bakoitzeko gehieneko plaza kopurua gainditzen bada, zozketa bidez osatuko dira taldeak.

Maiatzaren 27an argitaratuko dira jarduera-taldean araberako zerrendak, eta ekainaren 1etik 4ra gainerako plaza libreak betetzeko hitzordua emango zaie itxarote-zerrendan geratu direnei.

Kirol eskaintza zabala egongo da aurten ere, 17 jardurea mota, guztira. Udalaren webgunean egongo dira ikusgai ikastaro guztietako ordutegiak eta adin-tarteak.



ESPAINIAKO TXAPELKETARA

ESKUBALOIA Andrea García eta Mikel Agirrek zuzentzen duten kadete mailako nesken taldeak Euskadiko Txapelketa jokatu zuen joan den asteburuan Zarautzen. Ostiralean Barakaldoko Zuazo hartu zuten mendean (34-28), larunbatean Etxebarriko Kukullagaren aurka galdu zuten (29-36) eta igandeko partidu erabakigarrian garaipena lortu zuten Zarautzen aurka (36-25). Horrenbestez, Espainiako txapelketako faserako sailkatu dira Kukullagarekin batera.

GARAIPENA CASAISENTZAT, PODIUMA BERISTAINENTZAT

IGERIKETA AMPO taldean ari den Danel Casais oñatiarrak garaipena lortu zuen apirilaren 4an jokatu zen Sallurtegi sarian. Mendiko saria ere berak eraman zuen. Bestalde, ULMA taldeko Alex Beristain 3. sailkatu zen apirilaren 25ean Respaldizan (Araba) jokatu zen kadete mailako 1. urtekoen Euskadiko txapelketan.



AURRENEKO TXAPELKETA ZUBIKOAN

IGERIKETA Zubikoa kiroldegiko igerileku berriak aurreneko txapelketa hartuko du maiatzaren 8an, arratsaldeko 15:30etatik aurrera. Bergara, Azpeitia, Eibar, Donostia eta Legazpiko 14 urtetik gorako igerilariak ariko dira, etxeokin batera, markak hobetzeko ahaleginean. Ikusle barik jokatuko da.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com

MUSIKA **JOSE DE AZPIAZU** ESKOLA

MAIATZAREN 17tik 28ra IREKIKO DA 2021/2022 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA

Hurrengo ikasturtea planifikatzen hasita daude Jose de Azpiazu Musika Eskolan, eta maiatzeko bigarren hamabostaldian irekiko da matrikula epea. Aurtengo ikasleei automatikoki berrituko zaie matrikula, baina ikasten hasi nahi dutenek maiatzaren 17tik 28ra bete behar dute matrikula, **www.jazpiazumusikaeskola.com** web orriaren bidez.

Irailean ere egongo da aukera matrikula egiteko, baina orain egitea gomendatzen dute musika eskolako arduradunek, ezin dutelako bermatu lekua egongo denik irailean.

ZEIN ADINEKIN HASI?

Musika ikasten hasteko adinik ez dago. Edozein adin da egokia. Oñatiko musika eskolak 2 urtetik gorako ikasleentzako eskaintza dauka, eta hortik aurrera, adin muga barik.

Azken urte hauetan gero eta gehiago dira musika eskolara jotzen duten gazte nerabeak eta baita adineko pertsonak ere. Hauentzako formazio plan berezia dauka musika eskolak, bakoitzaren mailara egokituta.

FORMAZO PROZESUA

2-3 urteko hurrekin hasten dira musika lantzen (Musika goiztiarra). Gurasoekin batera joaten dira haurrak, astean ordubete.

Musika eta jolasaren bidez erritmoa, entzumena, sormena eta gorputz adierazpena lantzen dute, bestak beste.

4-6 urterekin lengoaia musikaren oinarriak lantzen hasten dira (astean bi saio), modu ludikoan, eta eskolak eskaintzen dituen musika tresnak probatzen hasten dira, txandaka, gustuko instrumentua aukeratu ahal izan dezaten, 7 urterekin.

8-9 urterekin instrumentua eta lengoaia musika lantzeaz gain, abesbatzako saio bat (30') ere izaten dute astero, eta 10-11 urterekin lengoaia musikala eta instrumentuarekin jarraitzeaz gain, taldeko saio bat ere egiten dute astean.

12-16 urte artean, instrumentua lantzeaz gain, taldeko saioak, *Muscore* (partitura editorea), *Harmonia*, *Analisis* eta *Soinu Teknika* ere lantzen dira.

INSTRUMENTUA IKASI

Gaur egun 18 instrumentu jotzen ikasteko aukera dugu Oñatiko musika eskolan: *biolina*, *gitarra*, *gitarra elektrikoa*, *baxua*, *bonbardinoa*, *tronboia*, *trontpetu*, *akordeoia*, *klarinetea*, *saxofoia*, *txistua*, *zeharkako txirula*, *pianoa*, *perkusioa*, *panderoa*, *dultzaina* eta *trikitixa*. Era berean, ahots teknika lantzeko aukera eskaintzen dugu.

MUSIKA TALDEAK

Musika eta instrumentuak ikasteaz gain, talde ezberdinetan parte hartzeko aukera ematen die musika eskolak bere ikasleei.

Azken batean, musika ikasteaz gain, musika bizitzea eta musikaz gozatzea da helburua, eta, helburu horrekin, eskolan bertan sortutako taldeetan parte hartzeko aukera dute ikasleek: akordeoi taldea, triki-panderoak, gitarrak, txistuak, perkusioak, metalak, haize-egur taldea...

Gainera, urtean zehar hainbat emanaldi ere antolatzen dituzte herri mailan eta ingurukoetan, elkartrukeak ere egiten dituzte (Salou...) eta atzerriko jaialdietan ere parte hartu izan dute (Italia, Holanda...).

18 INSTRUMENTU

Gaur egun 18 instrumentu ikasteko aukera eskaintzen du Oñatiko musika eskolak

MUSIKA TALDEAK

Ikasitakoa praktikan jarri ahal izateko ikasleei eskolan sortutako taldeetan parte hartzeko aukera ematen die musika eskolak, musika bizitzea eta musikaz gozatzea baita helburua, azken batean.

ZERGATIK IKASI MUSIKA?

Efektu positibo asko dituelako osasun fisiko eta psikologikoan. Musika ikasteak umeen garunaren garapena bultzatzen du, memoria lantzen laguntzen du, koordinazioa hobetzen, autoestimua indartzen, giza-harremanak errazten, sormena eta irudimena sustatzen, diziplina eta talde-lana sendotzen... Estresa eta depresioari aurre egiteko ere egokia da, eta loaren kalitatea ere hobetzen laguntzen du, besteak beste.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserniko agia,
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

| Nagore Orueta, Ane eta Aiantze Arregi



"Musika tresna danak joko nittuzke, baina bizitza ezta hain luzia. Musikia irakurten jakittia inportantia dala pentsaitten xat. Idatzitta dauen zeozer irakurri eta musikia urtetia magikua da".

| Kepa Zelaia



"Gitarra nere kabuz ikasten hasi nintzan, baina musika eskolara fateko biharra ikusi neben gauza barririk egittura baten barruan ikasteko".

| Alazne Agirre



"Etxeko zaletasuna jarraituz hasi nintzan musikia ikasten. Akordeoia, panderoa eta gitarraiz gain, gaur egun pianua ikasten dihardut".

IKASLEEN IRITZIAK • IKASLEEN IRITZIAK • IKASLEEN IRITZIAK • IKASLEEN IRITZIAK

| Aitor Gomez



"Datorren ikasturtian kanpora naia ikastera, baina musika eskolako ekintzetan parte hartzen jarraituko dot".

| Irati Jausoro



"Neri musikia asko gustaitten xat. Aitaxa eta amatxari askotan eskaketan doztet musikia jarteko".

| Mertxe Arregi



"Aktibo mantentzeko gauza barririk ikasteko gagua neukan. Musikia oso biharrezkoa sentituten dot".

| Erlantz Alberdi



"Etxian musika asko entzuten dugu, eta musikako emanalditan parte hartzeia asko gustaitten xat".

| Egoitz eta Jakes Olalde



"Arlo teknika ezinbestekoa ikusten dot barruan dakun musikia azalaraketako".



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

MATRIKULA ZABALIK

Maiatzaren 17tik 28ra

www.jazpiazumusikaeskola.com

web orrian

2 urterekin hasi eta adin mugarik gabe



Informazio gehiago:
idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com
edo 943 78 31 74 telefonoan





'Aita'

Bere lehen laburmetrai profesionala errodatu du Itsaso Pol oñatiarrak

Itsaso Pol Marcos (Oñati, 1993) zinegileak 'Aita' izenburua duen laburmetraia errodatu berri du. Profesionalki egiten duen bere aurreneko pelikula da, eta hain zuzen ere Oñatin filmatu nahi izan du, bera Madrilen bizi bada ere, duela hamar urte zinemagintza ikastera joan zenetik. "Historia herri batean gertatzen da eta, beraz, non hobeto norbere etxean baino, etxekoez eta lagunez inguratuta. Orain arteko lan guztiak Madrilen egin ditut, eta polita iruditzen zitzaidan proiektu hau Oñatin errodatzea" adierazi digu zinegile gazteak.

Apirilaren 2tik 5era, Aste Santuko jai egunak aprobetxatuz errodatu zituzten eszena guztiak. Une honetan pelikularen muntaian dihardu lanean, eta irudian nahiz soinuaren egin beharreko ukituak eginda, uda parterako dena prest edukitzea espero du.

'Aita' da laburmetraiaren izenburua, 15 bat minutuko iraupena izango du, eta familia baten inguruko drama kontatzen du: aita ospitalean ingresatu behar izan dute, kanpoan ikasten ari den alaba etxera itzuli da eta, poliki poliki, deskubrituz joango da etxean zer gertatu den.

Aspalditxotik zeukan eskaleta idatzita Itsasok, eta pandemiak eragindako itxialdia baliatu zuen

gidoia osatu eta proiektua martxan jartzeko.

AKTORE EZAGUNAK

Izen eta esperientzia handiko bi euskal aktore aukeratu ditu Itsasok protagonista lanetarako: Iñigo Aranburu (*Handia, Allí abajo, Alardea...*) eta Iraia Elias (*Amama -Goya sarietarako hautagaia-, Oreina...*). Ibilbide luzeko aktoreak dira biak ala biak, eta pelikulari sendotasuna emango diotela uste du zuzendari oñatiarrak.

Amaia Pol (Itsasoren ahizpa) eta Jon Guridi gaztetxoak osatu dute aktore zerrenda. Arrate Kortabarria, Paula Polo, Ana Arregi eta Ana Bodes oñatiarrak ere ageri dira, bigarren maila batean.

Arlo teknikoan ere ugari izan dira pelikulan parte hartu duten oñatiarrak, Itsasok Madriletik ekarritako lantaldea osatuz. Hona hemen zerrenda: Kepa Aranburu (argazki zuzendaria), Nerea Alonso (ekoizpen laguntzailea), Lezuri Ormazabal (arte zuzendaria), Irene Balzategi (arte laguntzailea), Ane Pico (makillajea), Imanol Astudillo (soinu teknikaria), Mikel Letamendi (mikrofonolaria), Ander Ugarte, Angel Lera, Iñigo Palacios eta Andoni Galdos (FX taldea) eta Uxue Guridi (making of).

Itsaso Pol Aste Santuan Oñatin grabatu zen 'Aita' laburmetraiko errodatajeko une batean.

📷 'Aita' laburmetraia

1

**profesionalki
egiten duen
aurreneko
pelikula izan da**

BESTE LAN BATZUK

Maila profesionalean Itsasok zuzentzen duen aurreneko laburmetraia da 'Aita', baina aurretik ere egin izan ditu beste labur batzuk. Ikasle garaian, esaterako, '13' eta 'Complete' errodatu zituen (azken hau Londresen, Erasmusa egiten ari zela) eta biak izan ziren sarituak unibertsitatean eta Londreseko *BaskFest* jaialdirako hautatuak izan ziren.

Iñigo Aranburu eta Iraia Elias aktoreak dira pelikulako protagonistak, baina hainbat oñatiarrek ere parte hartu dute talde artistiko nahiz teknikoan



Ikasketa amaierako proiektu gisa 'Caja de cerillas' laburra egin zuen Itsasok, eta Madrilgo PNR (Plataforma Nuevos Realizadores) jaialdirako hautatua izan zen. Laburmetrai zuzendari onenaren sarirako izendatuta egon zen.

ZINE JAIALDIAK

'Aita' laburmetraia amaitu bezain pronto, zinemaldi ezberdinetara aurkezteko asmoa du Itsasok, ahalik eta ibilbide oparoena izan dezan. 'Kimuak' Euskal Film Laburren katalogoan sartzea ere urrats inportantea izango litzateke, daukan oihartzunagatik, batez ere.

Oñatin emanaldi berezi bat egitea ere gustatuko litzaioke Itsasori, pelikulan parte hartu eta lagundu duen jende guztiarekin batera estreinatu eta ikusi ahal izateko.

Itsasok, 28 urte, Arte Eszenikoen eta Ikus-Entzunezkoen gradu bikotza ikasi zuen Madrilan, eta ondoren zine-zuzendari ikasketak egin zituen *Séptima Ars* eskolan. Une honetan *Arantza Vélez Casting* enpresan dihardu lanean. Laburmetrai ezberdinen errodajearen parte hartu izan du, eta iaz Madrilan errodatu zen *Terminator-6* pelikulako produkzio taldean ere aritu zen laguntzaile gisa. Publizitate arloan ere lan asko egin ditu, eta laster Bilbon errodatzen hasiko den serie bateko lantaldean ere badago.



1. Iñigo Aranburu eta Iraia Elias laburmetraiko protagonista nagusiak.

2. Aktore gisa, eta arlo teknikoan ere, hainbat oñatiar aritu dira.

3. Jon Guridi gaztetxoa, Itsaso Pol zuzendariaren aginduak hartzen.

4. Ane Pico makilatzaile lanak egiten, Amaia Pol aktorearekin.

DOKUMENATALA

PEREGRINO MODERNOEN OPORRAK



Aimar Uribesalgo oñatiarren 'Peregrino moderno en oporrak' dokumentala (70') ikusteko aukera izango dugu **maiatzaren 12an** (Gaztetxean 19:00), eta **hilaren 18 eta 19an** kultur etxean 19:00etan. Turismoaren gaia jorrazten du, bere ertz historiko, ekonomiko, sozial eta ideologikoak landuz.

Indotxinan zentratuta dagoenez (Vietnam, Laos, Kanbodia), penintsula horretako historia hurbilak nolabait kontakizuna ardatzen du, "txangozale internazionalen aisia" aitzakia bikain bilakatuz horren ezberdinak diruditen mundu mailako bi formazio sozialen inguruko analisi kritikoa mahaigaineratzeko: kapitalismoa eta "komunismoa".

Teknikoki sinplea den "artefaktu audiobisuala" gisa definitzen du egileak. "Merkantzia entretenigarri izatetik urrun kokatzen da. Formatua bera ere ez da ohikoa, adituek horrelako lanak tesi teorikoak lantzeko gomendagarriak ez direla baitiote. Ohituta gauden ikus-entzunezko komertzialek eskaintzen duten arinduaren kontrara, lan honek ikusleen tripak mugiaraztea du helburu. Amaieran galderak egiteko tartea egongo da. ■



Astean egindako zuzeneko emanaldi bateko irudia. © Félix Sánchez

Olakua dorretzeko goiko solairuan dagoen irrati estudioko bi ordenagailuak martxan; batek, emanaldi programa irekita eta saioan zehar beharko diren abesti, publizitate eta bestelako soinu-efektuak aireratzeko prest, besteak, emanaldia zuzenean *streaming* bidez zabaltzeko programa aktibatuta. Arnasa sakon hartu eta klik xaguari; hor doa airera 30. urteurrenako irratsaioa, FM 107.4an.

Aldeak badaude bai irratiaren 1991tik 2021ra, baina nagusiki alde tekniko-teknologikoak dira, irratiaren egiteko moduan ez baita aldaketa handirik izan. Kazetariak informazioa bilatu, egiaztatu, idatzi eta kontatzen jarraitzen du baina urrats bakoitza egiteko dituen baliabideak asko aldatu dira. Oñati Irratiaren kasete-pletinak alde batera utzita dauzkagu eta disko-platerak ez daude mahaira sartuta. Emanaldi programa internetez konektatzen da eta sakelako telefonoak nahiz sare sozialak informazioa jaso eta emateko oinarritzeko tresna bihurtu zaizkigu. Informazio iturriak ugaltu dira eta erritmoa bizitu. Teknologia mesede egin digu baina haren morroi bihurtzeko arriskuan jarri ere bai.

Orain urtebete, pandemiak etxera eraman gintuen, geratu eta hausnartzeko tarte aldarrikatu zuen askok, bizi genuen ezohiko eta ezusteko egoeraren alde ona azpimarratzeko. Irratia telebista eta prentsa idatzia

Abiada bizian

ONATI IRRATIAK 30 URTE Garai berrietara moldatzen baina sorrerako esentziari eutsiz jarraitzen dugu eta aurten ere entzuleen artean opariak banatuz ospatuko dugu 30. urteurrena

Miren Urkiola Serrano



1991eko maiatzaren 11a, larunbata. 10:00ak. Kultur Etxeko ganbaran egokitu zen irrati estudioan Jose Mari Agirrebengoa kultur teknikaria eta Migel Angel Kortabarria "Sarramendi" batzorde burua, zutik, kontrolera begira. Kristalaren bestaldean, kontrol-mahaiaren eta mikrofonoaren aurrean Miren Urkiola kazetaria irrati abentura bati ekiteko prest.

Arnasa sakon hartu eta klik pletinako play-ri; hor doa airera lehenengo aldiz Korpusetako San Migel dantza doinuaren pasarte batean oinarritutako sintonia. Hil berri den Juan Car-

Teknologia mesede egin digu baina haren morroi bihurtzeko arriskuan jarri ere bai

los Irizarrek propio moldatu zuen soinu-parsartea Oñati Irratiaren ikur da ordutik. Bob Marley-ren binilozko diskoa biraka, *One love* abestia entzungai FM 102an eta egun on! altu xamar bat antenara, aurikularretako "retornoa" ozoneari izatearen ondorio edo urduritasunak eragindakoa, besterik gabe. Minutuek aurrera egin ahala esataria lasaitzen joan zen eta gidoian aldaketa txikiak eginda, aurrez prestatutako grabazioak eta zuzeneko elkarriketa eta musika emanalditxoak tarte-katuta, 13:00etara iritsi eta saioa agurtu zuen, astelehenera arte.

2021eko maiatzaren 11, asteartea. 11:30ak.

 **garmendia tejas**

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberría (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.com



Aste egun
8:00-14:00



Kalitate gogorra
beti



Denak
berberritu

baino hedabide azkarragoa dela ikasi genuen fakultatean, baina horrek ez du esanahi informazioa kontrastatu eta osatzeko oinarriko urratsak bete behar ez dituenik. Irratia martxan jarri genuenean sare sozialak zientzia fikziozko filmetan ere ez ziren agertzen baina gurekin ditugu egun, horren kontsumitzaile gara eta,aldi berean, elikatu ere egiten ditugu. Baina garbi izan behar dugu sare sozialak informazio iturri direla, batzuetan, ez beti. Sare sozialen bidez zabaltzen den orok ez baitu informazio egiaztatuaren premisa betetzen. Ondorioz, sasi-informazio horrekin lehiatzeko tentazioari eutsi behar diogu, nork lehenago informatu lasterketa zoroan galdu gabe. Erritmoa jaitsi eta kontrastatutako informazio zuzena ematea aldarrikatu nahi dut. Zuzena eta zintzoa, herritarren esanetara gaudela ahaztu gabe.

Baina Oñati Irratia XXI. mendeko medioa da eta ezin die uko egin herriak eskatu eta aurrerapenak eskaintzen ditueni. Geure egunerokoa errazteko teknologiaz baliatzen garen bezala, bitarteko horiek erabiltzen ditugu elkarrizketak, albisteak eta saioak non-nahi eta noiz-nahi entzun eta irakurtzeko.

Maiatzaren 11n beteko ditugun 30 urteak entzuleekin ospatu nahi ditugu, opari ezberdinak zozkatuz. Zozketetan parte hartzeko ohiko bideez gain, zuen WhatsApp mezuak jasoko ditugu 688 665 979 zenbakian. Zorionak dano!

XXI. MENDERA EGOKITUTAKO MEDIAO

ZUZENEAN

Irrati frekuentzia: FM 107.4

Internet bidez: www.oñati.eus/eu/irratia-zuzenean

NAHIERAN

Podcast-ak: www.go.ivoox.com/sq/73978

WEBGUNEAN

Albisteak: www.oñati.eus

SARE SOZIALAK

@BerbiaOnati

Berbia Oñati



PANDERO IKASTAROAK



Lizargarate Trikitizale Elkartek antolatuta haur, gazte eta helduentzat

Lizargarate Trikitizale Elkartek antolatuta, haur, gazte eta helduei zuzendutako pandero ikastaroak egingo dira ekainean. Eltzian izango dira ikastaroak, egoerak eskatzen dituen segurtasun neurriak bermatuz. Izena emateko, bidali mezua lizargarateelkartea@gmail.com helbidera, parte hartzailearen izena, adina eta egin nahi den ikastaroa adieraziz. Hona hemen ikastaroak:

1. 'PANDEROEN HASTAPENAK' haur eta gazteentzako
LH3 eta DBH4 arteko ikasleentzat. Ekainaren 12 eta 19an. Irakaslea: Maixa Lizarribar. Prezioa: 10€.

2. 'PANDEROAREN HASTAPENAK' helduentzako
16 urtetik gorakoentzat. Ekainaren 19an. Irakaslea: Xabier Berasaluze 'Leturia'. Prezioa: 10€.

3. 'HANKA ETA BURU' ikastaroa
Adin guztiei zuzendua. (Ikastaro honetan parte hartzeko, panderoaren oinarriko ezagutza eduki behar da). Ekainaren 26an. Irakaslea: Lutxurdio. Prezioa: 10€.

4. 'PEÑAPARDA' ikastaroa
Adin guztiei zuzendua. Ekainaren 12 eta 19an. Irakaslea: Maixa Lizarribar. Prezioa: 10€ (Pandero ikastaro bat eta peñaparda, 15€).

MUSIKA EKITALDIA. Lizargarate taldeak antolatuta, herriko hainbat eragilerekin batera (Oñatz, Txinparta bertso eskola, Jose de Azpiazu musika eskola) musika ekitaldi berezia egingo da **ekainaren 26an** Santa Ana antzokian. Egun bat lehenago egongo dira sarrerak (dohainik) eskuragarri.

OÑATI IRRATIKO INSTALAZIOEN MANTENTZE ETXEA



Areso kalea 16
Tel.: 943 08 80 03
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)



Zorionak!!

Segi dezagun lanean, **30 urtez AIREAN**



Hiru zulodun flauta bertikala

2 5.000 urte pasa dira, adituek diotenez, euskaldun batek Baxenafarreko Isturitzen hegaztiren baten 12 zentimetro luze eta, gutxienez, hiru zulodun flautarekin musika sortzera jolasten zenetik. Gutxienez diot, hezurra hirugarren zuloan apurtuta aurkitu zuten-eta; agian hiru zulo izango zituen aurrez ere; akaso gehiago. Urte luzez uste izan da gaur egun txistu izenarekin ezagutzen dugun instrumentua munduko zaharrena izan daitekeela. Amets egitea aske den arren, hainbat adituk deuseztatu izan dute aipatu teoria: Jose Luis Ansorenak El txistu estado de la cuestión (1988) testuan, besteak beste. Nondik etorriko ote da, hortaz, bai Oñatiko eta baita ere Euskal Herriko hainbat eta hainbat zortziko eta kontrapas jotzeko erabiltzen den txistua?

25.000 urtean, jakina, euri asko egin du gure herrian. Izan zuten protagonismoa flautek, baita ere, antzinako zibilizazioetan: egiptoarren kañazko flautak, tribu afrikarren egurrezko flautak, Mesopotamiako Tigia, Japoniako Shakuhachi edo kultura Azteka eta Inkek sortutako Antara eta Ujusiniak.

Antzeman daitekeen moduan, mundu zabaleko jendarteak gozatu izan du historian hainbat motako flautez: jakina da, beraz, gizakiak gustuko izan duela bere soinua. XII. mendeko ikonografian, adibidez, oso aberatsa da testigantzak aurkitzea flauten erabileraz: orduko juglareek erabiltzen zituzten beraien ikuskizunei hasiera edota amaiera emateko.

Hiru mende beranduagoko dataz, berriz, badirudi juglareak hiru zulodun flauta bertikalekin dantzan egiteko doinuak jotzen hasi izana; hain zuzen ere, danbolina batu zenean bikora. Aurrez aipatu lanean horrela jasota dagoen arren, José Ignacio Ansorenak dio Txistu y tamboril vascos: origen y pequeña historia lanean (Txistulari aldizkaria 240; 2014/4)

XIII. mendeko flautet-tambourin bikoia ezaguna zela Europa guztian. Ezberdintasunak ezberdintasun, jarrai dezagun aurrera.

XVI. mendekoak dira hainbat euskal udalerritako udaletxeek juglare flautistei egindako ordainagiriak. Mende berean, baina, biolinak ikaragarriko garrantzia eskuratu zuen, eta aurrez horren ezagun eta gustagarri egindako flautek protagonismoa galdu zuten jendarteko klase altuetan.

Berri txarra ematen duen horrek, baina, flautista haiek aristokraziari eta nobleziari belarriak goxatetik herri xeheari dantzan egiteko piezak jotzera pasa ziren. Helburua bakarra zen: jarraitu gura zuten, zelan ez, egunero ahora zerbait eramaten. Eta momentu honetan egin zen danbolina eta flauta herriko instrumentu tradizional. Orduz geroztik herriko instrumentu izanda berau garatzen, afinatzen, hobetzen eta abar joan da euskalduna. Gaur egun ikus dezakegu inguruko herrietako flautek txistuarekin dituzten ezberdintasunak.

Herriko instrumentu tradizional bilakatzeak garrantzia handia eman zion, eta horrela uler daiteke zelan foru aldundiek eta udal ugariak duten beraien danbolintero banda. Oñatin ere badugu Aita Madina txistulari taldea. Alarde eder bat eskaini behar zuten, urteurrenaren jiran, maiatza, baina ezin izan dugu, zoritxarrez, ezer antolatu.

Egungo egoerak baldintzatu gaitu. Zain jarraituko dugu, baina, hurrengo aldi batean beraien zortziko eta kontrapasak dantzatzeko: gure tradizio ederraren erakusle dira.

Gora Oñatz!


Urte luzez uste izan da gaur egun txistu izenarekin ezagutzen dugun instrumentua munduko zaharrena izan daitekeela



Iñigo Murgiondo Agirre
Oñatz Dantza taldeko komunikazio taldea

ZURICH
M^a del Mar Urrutia Negeruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



atxi murka

#3. Dirurik

Nik ez dut dirurik behar

haizeak aurpegia laztan diezadan gura dut

Nik ez dut dirurik behar

etxe azpiko bankuan eseri eta txoriak entzun nahi ditut

Nik ez dut dirurik behar

kalean umeak jolasean ikusi nahi ditut

Nik ez dut dirurik behar

antzinako pasadizoak zuen ahotik entzun nahi ditut

Nik ez dut dirurik behar

mugikorra albo batera utzi eta entzun nazazun gura dut

Nik ez dut dirurik behar

trabarik inoiz egin ez al dizu?

Nik ez dut dirurik behar

liburu maitaleak ondoan nahi ditut

Nik ez dut dirurik behar

pare bat kulero motxilan jasota bidaiatu gura dut

Nik ez dut dirurik behar

ez bada maiteenekin otordua ogiz busti eta bizitzak elkarlotzeko.

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



AUZOETAKO JAIXAK

SAN MIGEL TXIKI / MAIATZAK 8 - 9

MAIATZAK 8

11:30 Haurrentzako jolas tailerrak Irunberri plazan (institutu aurrealdean).

12:00 Itxaflero jautiketeta eta txistularien diana; **12:30** Bertsoz bertso; **13:00** Marianito ordua terraza eta balkoietan;

17:30 Potx magoaren ikuskizuna haur eta helduentzat, Irunberri plazan (*).



MAIATZAK 9

10:30 Artisau azoka; **15:00** Auzoko emakumeen brindisa; **17:00** Kontzertuak (*) Irunberri plazan: Irene eta Asier + Andoni Ollokiegi.



(*) Aforoa mugatua. Sarrerak (doan) Txaketuako kruzian eskuratu ahal izango dira zapatu eta domeka goizean. Segurtasun neurriak bermatuko dira. Arduraz jokatzera eskatzen da.

MUSIKA

MAIATZAK 8 / 12:30

AKORDEOI TALDEA

José de Azpiazu musika eskolako akordeoi taldearen emanaldia. Sarrera dohainik. [Lazarraga lorategian](#).

MAIATZAK 30 /

'SACRUM'

Ganbara Faktoriaren Bazkide kontzertu kuttuna. Ganbara, Ganbara Txiki eta Hots abesbatzek parte hartuko dute, Aitor Biainen zuzendaritzapean. [Parrokian](#).

ANTZERKIA

MAIATZAK 21 / 18:00 eta 19:30

BEITA



Xup! herriko antzerki talde gaztearen antzezlari berria. Bi emanaldi. Sarrerak (6€) www.oñati.eus eta Txokolateixan. [Santa Ana aretoan](#).

HITZALDI-SOLASALDIAK

MAIATZAK 10 / 18:15

KORONABIRUSA ETA KONFINAMENDUAREN ONDORIOAK

Haur eta Lehen Hezkuntzako gurasoei zuzenduta. Hizlaria: Virginia Espin (Norgara) Parte hartzeko, ainhoa@onati.eus helbidean eman behar da izena, maiatzaren 7a baino lehen. [Telematikoki](#).

MAIATZAK 19 / 17:30 -19

'A PENOLOGIST IN THE BASQUE COUNTRY: REMINISCENCES BY JOHANNES FEEST'

Lege Soziologia erakundeko zuzendari ohi Johannes Feest ikertzaile eta

penologo alemanak online hitzaldia emango du. Hitzaldia jarraitzeko eman izena: I.kortabarria@iisj.es [Online](#)

MAIATZAK 28 / 18:30

ANTXIÑA, TRAKTORERIK EZ ZANIAN... NEKAZARITZA, LANTRESNAK ETA EUREN INGURUKO BERBAK

'Erreusak' egitasmoarren baitan. Hizlaria: Juan Martin Elexpuru [Santa Anan](#)

EKAINAK 3 / 18:30

'ZAHARKINAK' PROIEKTUA: DINAMIKA HERRIKOIA ETA ETNOGRAFIA

'Erresuak' egitasmoaren baitan. Hizlaria: Fermin Leizaola (Aranzadi). [Santa Ana](#).

BAKARRIZKETA

MAIATZAK 11 / 19:00

'¡POR COMENTARLO!'



Osasuna eta Eskubideak taldeak antolatuta, Oscar Terolen saioa. Sarrerak (10€) Txokolateixan eta Amalur Belardendan. [Santa Anan](#).

DOKUMENTALA

MAIATZAK 12, 18 ETA 19

PEREGRINO MODERNOEN OPORRAK

Aimar Uribesalgo oñatiarrek egindako dokumentala (70'). Turismoaren gaia jorratzen du, bere ertz historiko, ekonomiko, sozial eta ideologikoak landuz Maiatzaren 12an Gaztexasan (19:00) estreinatuko da. Hilaren 18 eta 19an kultur etxean (19:00).

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

OSTEGUN
KONTALARIAK

ANE GEBARA
(+ 6 urtekoentzat)
MAIATZAK 13



6 urtetik gorako neska-mutikoei zuzendutako ipuin kontaketa saioa, Ane Gebarareb eskutik Haur Liburutegian. Bi emanaldi: 17:30/18:15 (*). Ikasturteko azken saioa.

IPUIN
MUSIKATUA
(4-5 urtekoentzat)
MAIATZAK 27



4-5 urteko haurrei zuzendutako 'krikuren ibilaldia' ipuin musikatua (birziklatutako materialez egindako instrumentuekin), Turukutupa konpainiaren eskutik. Haur Liburutegian. Bi saio: 17:30 / 18:15 (*)

(* **Sarrerak eskuratzeko eman izena maiatzaren 7a baino lehen: 943716111 / liburutegia@onati.eus / 688732826 (whatsapp)**



Hileko gomendioa

Les Parasites taldeak zuzendutako 8 kapituluko telesail frantziarra. Kolapso ekologiko eta soziala sortu den mundu batean kokatzen gaitu. Gure egungo gizartearen erradiografia beldurgarria. Gozatzeko eta hausnarzeko telesaila.

Telesaila

FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ **943 78 21 16**
Maiatzak 3, 4, 12, 13, 21, 22, 23 eta 31. Ekainak 1.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ **943 78 01 22**
Maiatzak 5, 6, 14, 15, 16, 24 eta 25. Ekainak 2 eta 3.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ **943 78 05 58**
Maiatzak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27. Ekainak 4, 5 eta 6.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ **943 78 11 28**
Maiatzak 1, 2, 10, 11, 19, 20, 28, 29 eta 30. Ekainak 7 eta 8.

ZINEA



Maiatzak 7 - 10

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:**
Una joven prometedora
5 izendapen
Oscar sarietan
GAZTETXOAK:



Maiatzak 14 - 17

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:**
Aquellos que desean mi muerte
GAZTETXOAK:



ORDUTEGI BERRIA

Zine-kluba: Osteguna (19:00)
Nagusiak: Ostirala, larunbata eta igandea (19:00). Astelehena (19:00 / ikuslearen eguna)

Maiatzak 21 - 24

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:**
Ilargi guztiak
Gaztelaniazko azpitu-luekin
GAZTETXOAK:



Maiatzak 28 - 31

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:**
Mia y Moi
GAZTETXOAK:



MERKATU TXIKIA

GARAJE ITXIA ALOKAGAI Ramon Irizar kalean, Bidebarrieta eta Atzeko Kaletik hurbil. Deitu: 619 817 072.

KLASE PARTIKULARRAK Ingeniari-tzako ikaslea naiz eta LH, DBH eta Batxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest nago. Deitu: 688816197

KLAS PARTIKULARRAK Lehen Hezkuntzako eta Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak (logopeda), partikularrak ematen ditu: 618310126

ODOL ATERALDIA

MAIATZAK 14 / 16:30-20:00
Enpresagintza fakultatean



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

>> KONTU KONTARI

KRIAUTZAIA

Mutiko batek kria u fan bihar eben eta eukan hiru etxe ikusteko. Batera fan zan, eta esan otsan maiorazkuak: *“ba, hemen lana, badakik, baserrixa ta ...; bi txarri hiltten dittugu, baiña, bi txarri hil eta... urdaiazpikua ja gastauta dakogu, hau punta hau bakarrik geraketan xaku”*.

Etxekuak
laixan

Eta, bueno, hangua ikusi eben ta ... fan zan beste etxe batera. Beste etxe batera fan da ta... : *“ba, hemen baserrixan lana egoten da, txarrixak be hiltten dittugu, eta hemengo kartia badakitzu nola izaten dan: urdaiazpi, urdaiuntzo, bat hasitta eta bestia gastauta, bat hasteko eta bestia hasitta”*.

Irixak lotuta
lanerako gertu

Hangua ikusitta, beste etxe batera fan dira ta ...: *“hemen lan asko egoten da, urdaiazpikorik be eztagogu, danak harixak bakarrik, hauxe puntatxo hauxe, bi txarri hiltten dittugu, baiña! Urdaiazpikorik be eztagogu ta ...”*
“Ba, hementxe geldittuko naiz!”

Famelixa dana
ateetan

Ta esan otsan amak: *“nola geldittu haiz, ba, hor? Urdaiazpikorik be etxakuai!”*
“Hemen lan asko dakoilla ta ... Urdaiazpikorik eztago! Ba, hementxe geldittuko naiz, zeatik urdaiazpikuak jan dittueillako, eta bestietan jan balittue, ez zittuein eukiko!”

Kontalarixa: Murgialdaiko Maritxu Altube Irizar (1929-2014)

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Ama Birjiña Pagokua

Orain hurrengo alian **Ama Birjiña Pagokuaren** historixia kontaittia aginddu notsuen. Urbixarako bidian daguen iturrinari, 1957xan jaso zanian, izen hori jarri otsailla esaten geben. Zergatik? Hona hemen arrazoa: **Erroitti** edo Erroitegiko paraje horretan, pittin bat barrurago, bazan **pago haundi eder bat**, zahar samarra, bere enbor borobillian dezenteko **hutsunia** eukana. Zulo hori aprobetxauaz, **kuadro bat ifiñi euen bertan** Arantzazuko Ama Birjiñiaren irudixarekin. Noiz eta zeintzuk Joxe Iñazio Lasak argiketan dosku **Tejiendo historia** liburuan.

Bertan dixuenez, **Joxe Antonio Imaz Iparragirre** Idiazalbalgua eta **Sindikako Julian Madinabeitiaren aitta** izan ei ziren kuadrua arbolan kokatu euenak 1880 inguruan. **Joxe Antonio gaztetan morroi** egon zan urte pare batian Arantzazuko **Sindika ostatu-baserrixan**. **Gerora artzaintzan** jardun eben, Urbixa aldiaren seguru asko, bizilekua Goieritik Burundara, (Izaldik Olaztira) aldatuaz. Naparruako herri horretan hil zan 1927xan 67 urterekin. Bere semien esanetan, **ixa urtero faten ei zan oiñez Arantzazura**, batzuetan Galarretatik eta beste batzuetan Aizkorritik zihar, betik ardi bat eruan ez Ama Bijiñiari eskintteko.

Ba, Andra Marixaren **kuadruori larogei urte pasa egon zan babestuta** paguaren txokotxo haretan, iturririx egin zanian, lekuz aldatu euen arte. Gaurko **argazkixak**, hain zuzen be, batetik bestera **1957ko udan prozosiñuan eruan zanequak** dira. Ezkerreko fotografixan honeik ezagutu dittugu, bestiak beste: aurrekaldian, **Joxe Iñazio Lasa**, iturri-proiektuaren animia, rokete zurixarekin, **Agustin Biain** frantziskotar oiñatiarra, eta beste fraide gazte bat; eskuman atzeratuago, **Felix Igartua** bere seme **Tomaseri** lagunketan kuadruaren karriuan; atzerago, Juanitosieneko ama-alabak, **Kasilda Zufiria** eta **Rosita Arregi**; horrein atzian **Eloy Tejada**, Aitta Lasaren monagillo ospetsua Urbixako ermittan.

Eskumakaldeko argazkixan, barriz, lehenguez gaiñera, beste honeik be identifikau dittugu: aurreneko illaran, **Joxe Mari Agirrebaltzategi** abade oiñatiarra, gorago aittatutako frantziskotarrekin batera; bigarren illaran-edo, **Pako Errasti** mutikua, **Pedro Igarzabal** hazitxua eta **Bittor Madina** mutikua, erdi ezkutuan; atzerago **Teofilo Agirrezabal**, Oiñatiko kronistia orduko periodiko batian, eta **Ernesto Biain** mutikotxua, Tomas Igartuaren anderokidia; hurrengo illaran, **Pedro Agirre** eta **Joxe Luis Letamendi** gaztiak edota **Pedro Guridi** Oiñatira ezkonduetako mondraguetarra dagoz, beste batzuen artian.

Milla esker anonimatuan geraketia gura izan dauen oiñatiarrari, argazkixak gure esku jartiarren, eta Imanol Arabaolazari, argibide batzuk samurketiarren.

Utzi zure ametsetako etxearekin amesteari eta bete zure ametsa.

Irudian:
Soraluzeko
baserri batean
burututako
proiektua.

Amuebladora Mondragonesan
erreforma integralak egiten ditugu zure
ametsetako etxebizitza errealitate bihurtzeko.